

Sakontze egitasmoa  
HIZNET Hizkuntza plangintza ikastaroa  
2007-2008



UDALERRIETAN EUSKARA  
BIZIBERRITZEKO PLANAK eta  
PARTE-HARTZEA.  
BEGIRADA BAT GURE PRAKTIKEI

Ikaslea: Alex Vadillo Otxoa

Tutorea: Zesar Martinez Garzia

<b>1. ABIAPUNTUA</b> .....	<b>3</b>
<b>2. ERREFLEXIBITEA</b> .....	<b>5</b>
<b>3. UDALERRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANAK</b> .....	<b>9</b>
Historia txikia.....	9
Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.....	11
Euskara biziberritzeko planak udalerrietan: aukerak eta mugak.....	13
<b>4. PARTE HARTZEA: OINARRIAK ETA METODOAK</b> .....	<b>15</b>
Parte-hartzearen oinarriak .....	15
Parte-hartzerako metodoak.....	18
Prozesuaren antolamendu instituzionala eta metodologikoa.....	19
Diagnostiko partekatua.....	19
Gai kritikoen azterketa.....	20
Programazioa eta ekintza plana atondu. ....	21
<b>5. GASTEIZEN EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA: BEGIRADA BAT</b> .....	<b>22</b>
Lehen urratsak .....	22
Prozesuaren antolamendu instituzionala eta metodologikoa.....	24
Diagnostiko partekatua .....	27
Programazioa eta ekintza plana atondu. ....	32
Plana abian jartzea: garapena eta kudeaketa .....	39
Proiektuak eta jarduerak abian jartzeko eta gestionatzeko modua .....	39
Komunikazioa.....	41
Osagarritasuna: administrazioaren eta gizarte erakundeak. ....	44
Euskararen Sektore Kontseilua.....	46
Ebaluazioa.....	50
<b>6. HAINBAT ONDORIO</b> .....	<b>56</b>
Plan amaitu berriaren ebaluazioa eta prestaketa-lanak .....	56
Diagnostikoari buruz.....	56
Programazioari buruz .....	57
Programen gestioari buruz .....	58
Euskararen Sektore Kontseiluari buruz .....	58
Komunikazioari buruz.....	59
Jarraipena eta ebaluazioa .....	60
<b>7. BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>61</b>

# 1. ABIAPUNTUA

Bi mila eta lauko abenduan Gasteizen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen Gasteizko Udalak. Atzean urtebeteko lana zegoen, eta hainbat jenderen inplikazioa: Elhuyar Aholkularitza, Udaleko teknikariak, Euskalgintza, gizarte eragileak,... 60 pertsona inguru, 41 elkarteren izenean.

Horrez geroztik orduko plana izan da gure lanaren erreferentzia nagusia. Batzuetan hobeto eta beste batzuetan okerrago, horretan aritu gara lau urte hauetan. Tarteka beharra sumatu dugu gelditzeko, nondik gatozen eta noraino heldu garen ikusteko, eta gerora nora abiatu behar garen birpentsatzeko.

Hizkuntza normalizazio prozesuak prozesu sozialak direla. Lantzean behin, ez dago soberan gogoratzea. Jakin badakigu, bestalde, prozesu sozialak konplexuak izan ohi direla. Luzeak ere bai. Zaila da une bakoitzean prozesuaren egoera zein den antzematea, baita arlo horretan gauzatzen ari diren ekintzen eta proiektuen eragina antzematea ere. Hizkuntza plangintzaren izaera soziala azpimarratzea interesatzen zaigu, parte-hartzaileak izateko beharra horretan oinarritzen dugulako.

HIZNET ikastaroan ere izaera soziala azpimarratu nahi izan da. Mikel Zalbidek, esate baterako, Fishmanen lau kontzeptu azaldu ditu: (a) *Corpus planning*: hizkuntza bera “garai berrietarako” egokitzea; (b) *Acquisition planning*: galbidean doan hizkuntza jendeari erakustea; (c) Osabetezko *status planning*: aginpidea eskuratuz hizkuntza ahulari, ohikoez gain, goi-mailako funtzioak segurtatzea; eta (d) *Community fostering*: hizkuntza ahulari belaunez belauneko iraupen-bidea bermatzea eta hiztun-elkarteari bere neurriko esparru berriak zabaltzea. Azken kontzeptu hau (*Community fostering*) bete-betean dator bat gure kezkarekin. Terminoa Zalbidek berak proposatzen du Fishmanen ideia-gako batzuk hobeto azaltzeko.

Robert Cooper-ek 1997an *Language Planning and Social Change* liburua argitaratu zuen 1997an. Bertan hizkuntza-planifikazioa planifikazio sozialaren kasu bat dela defendatzen du: gizartearen eraldaketa bilatzen duen esku-hartze mota bat, alegia. Bertan dio helburua eta jomuga ez dela hizkuntza, gizartea bera baizik: integrazioa, kontrol politikoa, ekonomia garapena, elite berriak sortzea edo elite zaharrak mantentzea, gutxiengoak indartzea,...

Liburuan azpimarratzen du nekez egon daitekeela hizkuntza planifikazioaren teoriarik, aldaketa sozialaren teoriarik ez dagoen bitartean.

Hori horrela, beldur naiz euskara-planak ez ote diren (enpresa munduko) plan estrategikoen metodologiari estuegi loturik agertu eta ez ote dituzten planifikazio eta esku-hartze sozialen ereduak alboratu samar utzi. Plan estrategikoetan, hizkuntza biziberritzeko planaren azken gauzapeña ekintza, jarduera edo programa multzo koherente bat da. Halere, plana ekintza horien guztien batuketa hutsa baino zerbait gehiago da: planaren atzean harreman-sistema oso bat dago, botere-harremanak, aliantzak, sinergiak, kontraesanak,...

HIZNET ikastaroarekin batera PARTE HARTUZ taldeak koordinatutako hainbat ikastarotan parte hartzeko aukera izan dut eta hor oso nabaria egin zait harreman-sistema horiek zenbateko garrantzia duten prozesu sozialetan.

## 2. ERREFLEXIBITATEA

Sakontze-lan honetan gure jardunari buruzko gogoeta-lana egin nahi izan dut: azken lau urteko ibilbideari begirada eman eta zer ikasi dugun ikusi: duela gutxi irakurri nuen bezala, errutinari lapurtzen diogun minutu bakoitza berrikuntzari eskaintzen diogun denbora delako.

Begirada horretan zeri antzeman? Esan bezala, prozesu sozialak konplexuak dira, poliedrikoak,... Ezin dira begirada bakar batean bere osotasunean antzeman. Horregatik, alde nabariena(k) aukeratu eta dimentsio horien araberrako begirada egitea da erronka.

Parte-hartzea aukeratu dugu eta horrekin batera baita komunikazioa ere, horiek elementu errekurriteak izan direlako bai guk egin izan ditugun balorazioetan baita euskalgintzaren mundutik egin diren ekarpenetan ere.

Gogoeta hori egiteko bi erreferentzia metodologiko izan ditugu:

- 2004tik hona Euskal Herriko zein atzerriko hainbat erakundek esperientziak sistematizatzeko abian jarri zuten proiektuaren garapen teorikoa.
- Narratiben inguruan gizarte zientzietan eta enpresa munduan garatzen ari diren esperientzien erreferentzia.

Esan bezala, 2004an, Euskal Herriko zein atzerriko hainbat erakundek esperientziak sistematizatzeko proiektu bat abian jarri zuten. Proiektua bultzatu zuten elkarleen artean honakoak zeuden: Hegoa (EHUko Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea), ALBOAN eta INCYDE (Iniciativas de Cooperación y Desarrollo).

Proiektuan era askotako elkarrek parte hartu zuten, ikuspegi parte-hartzaile batetik gizarteremu ezberdinetan eraldatze-prozesuak laguntzen jarduten zuten elkarreak ziren. Tartean Elhuyar Aholkularitza zegoen.

Proiektuan parte hartu zuten erakundeak euren jardueraren sistematizazioan aritu ziren, honako pausu hauen arabera:

- Aztertu beharreko proiektuak aukeratu eta esperientzia berreskuratu
- Esperientzia horretako faktore gakoak ikusi, hainbat ikuspuntutatik begira jarrita
- Gertatutakoaren gainean galdera kritikoak egin
- Galdera horiei erantzun, ondorioak atera eta ikasi

Prozesu horren emaitzak hainbat liburuxkatan argitaratu zituzten erakundeek. Elhuyarrek “*Euskara Planak: nondik gatoz, non gaude eta nora goaz*” liburuxka argitaratu zuen.

Egileen arabera sistematizazioa esperientzia bat edo batzuen interpretazio kritikoa da, esperientziak ordenatzea da bai prozesua eta bai hor eragina duten faktoreak azaltzeko. Sistematizazioa ikasketa-prozesu gisa ezaugarritzen dute. Lan honetan antzeko ibilbide bat jarraitzen saiatu naiz.

Sistematizazioa hiru galderatan oinarritzen dute:

- Zertarako sistematizatu nahi dugu? Helburua
- Zer esperientzia sistematizatu nahi dugu? Objektua
- Esperientzia horren zer alderdi interesatzen zaigu sistematizatzea? Ardatza

Lan honetan Gasteizen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren lau urteko ibilbidea berreskuratzea eta hurrengo plangintzaldia antolatzeari begira ideiak argitzea izan dugu helburu. Objektua, beraz, Gasteizen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izan da. Ardatza, lehen ere esan dugun bezala, parte-hartzea.

Prozesuaren ibilbidea berreraikitzeke une eta gertakari esanguratsuak jasotzea, sailkatzea eta ordenatzea izan da asmoa. Horretarako dokumentazio asko izan dugu (planaren testua, txostenak, memoriak, aktak, e-postako mezuak...) baina, tutoreak berak proposatu zigan bezala, informazio hori guztia motz gera zitekeen, ibilbide horretan parte hartu duten protagonisten partaidetzarik eta iritzirik jaso gabe.

Hori horrela, urtez urte planaren barruan garatu diren ekintzak zerrendatu ondoren, zerrenda hori planarekin lotura izan duten sei pertsonari bidali diegu, hainbat galderarekin batera:

- Noiz pentsatzen duzu lortu dugula hobekien jendea inplikatzeko?
- Noiz ez dugu inplikazioa lortu? Eragileak, zein momentutan egon dira edo sentitu dira urrutien?

- Oro har, euskara zerbitzua zein momentutan egon da finen?
- Akats edo hanka-sartze nagusiak noiz izan ditu? Zein momentutan?

Erantzunak ibilbidea osatzeko oinarriak izan dira.

Ibilbidea kontatu nahi izan dugu eta ahal dela azalpen teorikoetatik urrundu. Hala ere, iritziak eta argudioak tartekatu ere tartekatu ditugu.

Kontatzea hausnarketa egiteko teknika ona da. Teknika narratiboak arrakastaz erabili dira gizarte-langileekin, erizainekin, irakaskuntzan,... hiru arlo nabarmenenak aipatzeagatik.

Euskalgintzan ere euskaltegien munduan tresna erreflexiboak aldarrikatu izan dira azken urteotan: gelako diarioak, postprogramazioak,... Portfolioak ere horrelako oinarriak ditu: ikasleak (irakasleak, teknikariak) esanguratsuak iruditzen zaizkion lanak bildu eta karpeta batean batu, bakoitzari buruzko iruzkin txiki batekin batera. Ibilbide akademikoaren (edo profesionalaren) ikuspegi kronologikoa ematea da, beraz, helburua.

Enpresaren munduan ere erabili dira teknika narratiboak. Euskal Herrian bertan MIK zentroak (MCC taldearen barruan enpresen gestioari buruzko ikerketan dabilen taldea) enfoke horiekin lan egiten du. Narratibak erabiltzen dituzte ezagutza tazittoa (jakin bai, baina dakigunik ez dakiguna) ezagutza esplizitua bihurtzeko. Ikasbide gisa erabiltzen dituzte, narratibak esperientzia egituratzen laguntzen duelako eta ezagutza ez-kontzientea mobilizatzen duelako. Teoria erraza da: azaltzen ez dakigun hori narrazio baten bidez agerraraztea.

Esan bezala, enfoke deigarria eta interesgarria iruditu zait. Hor-hemenka hainbat irizpide bildu dut, nire ustez argigarriak direnak:

— Narrazioa ez da bigarren mailako kontua. Ez da ondorioak atera aurretik informazioa antolatzeke era hutsa (hori ere bai). Ezagutza eraikitzeke lehendabiziko fasea da. Gertaera bati esplikazioa eman ahal diogu, soil-soilik gertaera hori modu narratibo batean landu eta interpretatu dugunean: esperientzia horretan orden pixka bat jarri dugunean, alegia. Narrazio bat eraikitzea erarik oinarritzkoena da gure esperientziari esanahia emateke eta esperientzia ezagutza bihurtzeko.

— Narrazioa eraikitzeke egoera edo egintza batzuk hautatzen ditugu eta beste batzuk ahantzi edo estali. Ez dago a priori irizpiderik zeintzuk gertaera sartu behar ditugun eta zentzuk ez. Hori da interesgarriena. Gertaerak garrantzitsuak izango dira baldin eta esperientzia ulergarriago bihurtzen badute eta protagonistek esanguratsuak direla pentsatzen badute. Narrazioa ipuin batekin alderatu ahal dugu: ipuina idazten hasi aurretik, badakigu amaiera

zein izango den. Gertaerak, beraz, horren arabera aukeratzen eta antolatzen ditugun: heldu garen lekura nola heldu garen ulertarazteko baliagarriak izateko moduan. Oroimenetik narrazioa pasatzen garenean, gertaerei koherentzia, zentzua eta norabidea ematen saiatzen gara. Bourdieuk honela idatzi zuen:

*"Tenemos, sin duda, el derecho de suponer que el relato autobiográfico se inspira siempre, al menos en parte, en el deseo de dar sentido, dar razón, extraer una lógica a la vez retrospectiva y prospectiva, una consistencia y una constancia, estableciendo relaciones inteligibles, como las del efecto a la causa eficiente o final, entre los estados sucesivos, constituidos de este modo en etapas de un desarrollo necesario"*

- Narrazioan ez daude egoera eta gertaera hutsak: "helburuak", "nahia edo desioa", "asmoa edo intentzioa", "zergatiak eta arrazoiak"... horiek guztiak ere narrazioaren parte dira. Alferrikakoa da beraz subjektibitatearen eta objektibitatearen arteko eztabaida. Zer gertatu zen eta zer ez, agian objektibagarria izan daiteke; protagonista bakoitzaren nahiak, asmoak, helburua,... ez.
- Narratibak polifonia ere berezkoa du. Narratzailearen ahotsa ez ezik, gainontzeko protagonisten ahotsa ere presente dago bertan.



### 3. UDALERRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANAK

#### Historia txikia

Iñaki Arrutik udalerrri mailako hizkuntza plangintzari buruz hitz egin du HIZNET ikastaroan. Udalek Euskal Herriko bizitza soziopolitikoan duten garrantzia azpimarratu du, eta euskararen normalizazio linguistikoan duten erantzukizuna aldarrikatu. Are gehiago: hizkuntza normalizazioa bideratzeko unitate naturala udalerrria dela defendatzen du. Horretarako honako argudio hauek ematen ditu:

- Herritarrarengandik gertuen dagoen ingurune geografiko, soziala eta instituzionala da.
- Ingurune pribilegiatua da, bertako egoera soziolinguistikoa ezagutu ahal izateko.
- Planifikazioaren ikuspegitik, diseinu kontrolagarriagoak ahalbidetzen ditu.
- Mugimendu sozialekin lankidetzaren antolatze aukera hurbila ematen du.
- Erdiko kate-maila osatzen du: alde batean goiko erakundeetatik datozen araubideak eta irizpideak daude, eta bestetik herri mailako harreman-sare zabala (herritarrak, erakundeak, elkarteak, taldeak eta horien guztien asmoak eta eraginak).
- Euskal Herriko lurralde antolaketaren unitate oinarritzkoena da.
- Familia, eskola, lana, administrazioa, aisialdia, kirola,... planifikazioaren esparru edo arlo horiek guztiek herri mailako egitura bat edo beste dute.

Hori esanda, Arrutik udalerrietan hizkuntza plangintzen bilakaera (edo bilakaera-eza) deskribatzen du. Horretarako Iñaki Larrañagak 1984an eta Kike Amonarrizek 1989an JAKIN aldizkarirako idatzitako artikulua bana hartzen du abiapuntu (aipatu behar da bai bata bai bestea SIADECO ikerketa-taldean aritutakoak direla). Bilakaera horrela laburbiltzen du:

— SIADECO ikerketa-taldearen eskutik batez ere 1984rako landuta zeuden udalerrietan euskara-planak egiteko lehendabiziko planteamendu metodologikoak. Planteamendu metodologiko horiek ez daude oso urrun gaur egun gauzatzen ari diren planetatik:

- Udal barneko euskararen normalizazioa eta Udalerriko bizitzaren normalizazioa bereizi baina biak plan beraren barruan txertatu.
- Herriko bizitza soziala gizarte-sektoretan banatu. Honakoak: irakaskuntza (ikastetxe, akademia, euskaltegi,...); erakunde administratiboak; solas, kirol eta kultur talde eta elkarteak; alderdi eta sindikatuak eta herri-mugimenduak; lan-mundua; merkataritza: denda, taberna, diru-etxeak eta gainontzeko zerbitzuak; profesio liberalak; herriko komunikabideak; gizarte-laguntzetarako zerbitzuak;...
- Arlo horietako bakoitzean kontsentsuaren bidea jorratu (hitzarmengintza).
- Arlo edo sektore horietako bakoitzean, euskararen egoeraren diagnosis egin, egin daitezkeen ekintzak edo kanpaina pentsatzea, urrats berri bakoitzaren jarraipena eta kontrola.

— 1980ko hamarkadan planteamendu horiek oso gutxitan eraman ziren praktikara. Arrutik honela dio:

*"udaletik kanpora eta gizarteko bizitza euskalduntzeko egin diren entseiu gehienek ez dute arrakastarik izan: lokalistegiak izan dira, ez dute segimena izan eta ukitutako sektoreen partaidetzarik gabe planteatu dira"*

— 1990ko hamarkadan ere aldaketa gutxi. Arrutik honela laburtzen du:

*"Planifikazio-lanari hertsiki helduta, ordea, herri gutxitan dago hizkuntza plangintza bat (lehengo adibidearekin jarraituz, herri gehienek, ordea, arau subsidiariok badituzte). Plangintza bat diogunean, herriko hizkuntza egoera diagnostikatu, lehenetsunak jarri, lehenetsun horietan eragiteko programak prestatu eta gauzatu eta horiek ebaluatu diogu. Are gehiago, hori ziklikoki eginda, eta urteko kudeaketa plan batekin /.../ Herri gehienetan, ekintza-sorta bat izan ohi da plana. Ekintza-sorta horrek, ordea, kasu askotan, plan batek eskatzen dituen*

*hainbat urrats ez ditu betetzen, eta ondorioz, desegokia izan daitekeen urte batetik besterako inertzian bihurtzen da." /.../*

*"Badira, ordea, salbuespenak eta gauzak egiteko modu eredugarriak azaldu nahi dituztenak. Udal zehatzak aipatzea arriskutsua edo behintzat delikatuia izan badaiteke ere, gehienok bat etor gintezke Arrasaten garatutako hizkuntza politika (eta hizkuntza plangintza) erreferente bat izan direla Euskal Herrian"*

Gasteizen Donostiara begiratzeko joera handixeagoa izan dugu eta bertako Plan Orokorra erreferentea izan da sarritan (agian hura ere hiriburua delako edo Arrasate geografikoki, hurbila izanik ere, soziolinguistikoki urrun samar antzeman dugulako).

## **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia**

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak hainbat aldaketa ekarri ditu udalerrietan egiten ari ziren planifikazioetan. Ziur aski bestelako koherentzia eskaini dizkie. Gasteizen ere halaxe izan dela iruditzen zait: EBPNk ekintza berriak abian jartzeko bai, baina ordura arteko lanaren kasuan inertziak astintzeko ere balio izan du.

Eusko Jaurlaritzak 1999an onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hurrengo 10 urteetako erronkak definitzeko. Planaren helburu nagusia honakoa zen:

- euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Horretarako hiru helburu estrategiko planteatzen ditu:

- Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe, ondorengoetaratzeko. Euskararen geroratzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz lortzen da, batez ere.
- Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza. Datozen hamar urteotako erronkarik nagusia, belaunaldi berrietako euskalduntzat euskara heldu-aroko

erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza.

- Euskararen elikadura. Hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko, elikatu egin behar da, liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez.

Helburu horiei erantzuteko 91 oinarrizko neurri proposatu ziren, 17 esparrutan banatuta. Esparruak honakoak ziren:

- Euskara ondorengoetaratzea (3 esparru): irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea eta familia bidezko jarraipena.
- Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza (7 esparru): administrazioa, gune euskaldunenak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, enpresa mundua, aisia, kirola eta erlijioa
- Euskararen elikadura (7 esparru): corpus plangintza eta euskararen kalitatea, prentsa idatzia, liburugintza, irrati, telebista, publizitatea, kulturgintza.

Eusko Legebiltzarrak, plana berrestez gain, EBPn Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan eta udal handietan (5.000 biztanletik gorako udalerrietan) garatzeko oinarrizko irizpideak aztertzeke eskatu zuen.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia gidari, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan garatzeko moduko plan xehatuak egin ziren, udalek erreferentzia egokitua izan dezaten. Udal-ereduak edo taldeak definitu ziren bi parametrori begiratuta: udal bakoitzaren biztanle-kopurua eta euskaldun-kopuruaren portzentajea (hiriburua, bakoitza bere aldetik aztertu ziren). Jarraian EBPn definitzen zituen neurriak banan-banan aztertu ziren eta udaletan garatzekoak zirenak aukeratu. Udaletan aplikagarriak ziren neurriak erabakita, honako pausu eman ziren:

- Helburu zehatzak finkatu, neurrietatik abiatuta. 20 helburu zehaztu ziren.
- Ildo estrategikoak zehaztu ziren, hau da, helburu horiek lortzeko jarraitu beharreko bideak. Guztira 41 ildo
- Ildo horiek garatzeko ekintzak finkatu ziren, esparruz esparru. Guztira 120 ekintza.
- Eredu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, gehien erabil beharko liritekeen esparruak

zehaztu ziren eta ekintzak lehenetsunaren arabera ordenatu ziren (erabatekoa, altukoa, ertainekoa eta baxukoa).

Hori horrela, Euskara Biziberritzeko Plana abian jartzeko udalek bi dokumentu jaso zuten: euren herriari zegokion datu-bilduma (Sailburuordetzaren esku zeuden datuekin osatua) diagnostikoa osatzeko eta beren tipologiari dagokion plan-eredua. Ereduan egokitzen jotako neurriak eta ekintzak lehenetsen ziren. Edozein kasutan ere, planteamendu irekiak ziren, behar beste egokitu eta moldatu zitezkeenak.

Jarduteko prozeduraren baitan aholku batzordea osatzea proposatzen zuten, bertan diagnostikoa zein plan estrategikoa aurkezteko eta ekarpenak egiteko. Prozesuan parte-hartzea bideratzeko irizpide gehiagorik ez zen ematen.

### *Euskara biziberritzeko planak udalerrietan: aukerak eta mugak.*

Esan bezala, udalerrietan EBPN abian jartzeak bestelako koherentzia eman dio hainbat eta hainbat udalerritan egiten ziren normalizazio-ekintzei. Bide horrek, halere, zalantzak, zailtasunak eta arriskuak ere ekarri ditu. Hiru mailetan sailkatuko nituzke nik:

Udalerrietan planak izan dezakeen beregaintasunari buruzko zalantzak.

- Zalantzak, esate baterako, herriko eragileak bildu eta herri mailako diagnostikoa egiteko lana hartzeak merezi ote duen, diagnostikoaren lerro nagusiak dagoeneko emanda baitaude.
- Zalantzak ere bai herri mailako planifikazioaren helburua aldeztu aurretik zehaztutako ekintza-katalogo batetik ekintzak aukeratzera eta inplementatzera mugatuko ez ote den. Hau da herri mailako planifikazioak maila goragoko planifikazio baterako transmisio-katea besterik izango ez ote den.
- Zalantzak, azkenik, Udalek hizkuntza politikaren gaineko eskumen nahikoak ote dituzten. Izan ere, eskumen nagusiak administrazio autonomikoak ditu eta joera egon daiteke erabaki handi guztiak aldeztu aurretik hartuta daudela pentsatzeko.

Hainbat alorretan udalerririk mailatik eragiteko ezintasunak

- Arlo batzuetan udalak eskumen mugatuak ditu: hezkuntza mundua, esate baterako

horrelakoa da. Euskalduntze-alfabetatzean bada non eragin: demanda suspertuz, xede bereziko kolektiboetara ailegatuz,... baina gai sakonetara helduz gero, arauketaren eta finantziazioaren gaiak agertzen dira bete-betean. Komunikabideekin ere antzeko zerbait gertatzen da: gehienez ere herri mailako komunikabideen sustapena egiteko ahalegina egin daiteke.

- Beste arlo batzuetan herri mailako ekintzen eragingarritasuna da zalantzatan jartzen dena. Kultura sorkuntza izan daiteke horietako bat. Euskarazko kultura sorkuntza (antzerkigintza, zinemagintza,...) udaletik bertatik bultzatu daiteke? Gehienez ere, bertoko sortzaileak lagundu ahal dira, eta hori euskara planarena baino areago udaletako kultura sailen ardura da.

Modu transbertsalean lan egiteko zailtasunak

- Euskara sustatzeko ekintza guztiak euskara zerbitzuaren esku gelditzen badira... gaizki goaz. Kultura arloan euskara sustatzeko ardura udaleko kultura sailarena da, kirol arloan udaleko kirol sailarena,... Zailtasunen atalean jarri dut, egun euskarak ez duelako horretarako behar besteko zentralitate baina jauzi kualitatiboak emateko aukera paregabea ere badela iruditzen zait.

Zailtasun horiek ikusita, udalerrietan euskara biziberritzeko planen onura eta birtualitate handiena bizitza sozialean eragiteko gaitasuna dela uste dut. Plana egiteko orduan horrela ulertu eta islatu genuen, planean lehentasunezkoa baita herritarrak harremanak euskaraz izateko guneak eta aukerak sustatzea, hau da, euskaraz egiteko aukera estrukturalak bultzatzeko egitasmoak indartzea.

Egitasmoaren ardatz nagusi bat, beraz, hiriko bizitza sozialean eragitea da. Horrelako proiektu bat ezin da eraiki, gure ustez, bizitza sozialeko eragile aktibo(en)en partaidetzari bizkar emanda.

## 4. PARTE HARTZEA: OINARRIAK ETA METODOAK

Parte hartzeari buruzko hainbat ideia azaltzeko Joel Martiren eta Oscar Reboloren lana erabili dut (2007), parte-hartzeari buruzko corpus teorikoaren sintesi-lan iruditu zaidalako.

Oinarriak, metodoak eta teknikak bereizten dituzte. Bereizketa interesagarria da:

- Lehengo pausuak ezin dira ez metodologiak ez teknikoak izan: lehen pausuak politikoak izan behar dira, halaberharrez: norainoko partizipazioa bultzatu behar den; informatu, kontsultatu, eztabaidatu edo elkarrekin erabaki... ez da erabaki teknikoa, politikoa baizik.
- Metodoak eta teknikak ere bereizten dituzte. Metodoa ibilbideari egiten dio erreferentzia: helmuga batera iristeko jorratu daitekeen bideari. Teknika zerbait xumeagoa bada: tresna bat, prozesu baten barruan erabiltzeko. Teknikak prozesua elikatu behar du baina teknika ez da prozesuaren muina<sup>1</sup>.

### Parte-hartzearen oinarriak

Oinarri hiru ataletan lantzen dituzte: proiektua, protagonistak eta prozesua.

Proiektuaren inguruan:

- Herritarren parte hartzean bi estrategi ezberdin oinarritu ahal dira: **legitimizazioa ala eraldaketa**. Parte-hartzea legitimazio gisa bultzatzen denean, norberaren jarrerak, helburuak eta interesak indartzea da helburua eta ez horien aldaketa. Parte-hartzea, benetakoa bada, aldaketa sozialak eragiteko estrategia da
- Aldaketak bultzatzeko oinarritzko elementuak pertsonak dira. Pertsonak aldatu ahala, gauzak aldatuz joango dira. Horregatik autoreek defendatzen dute prozesua eraldatzailea izateko **hezitzailea** ere izan behar duela: balioak, jarrerak, erlazionatzeko moduak,

---

<sup>1</sup> Joel Martik (2006) azaltzen du teknika partizipatiboak gure hirietako demokrazian sakontzeko eta demokrazia eraldatzeko erabil daitezkeela, baina berdin-berdin erabil daitezkeela demokratikoak izateko inolako pretentsiorik ez duten instituzioetan (enpresetan, esate baterako).

lankidetzaz, negoziatzailea (nik irabazten dut, baldin eta zuk ere irabazten baduzu),... horiek dira lehen aldaketak.

- Prozesu sozial guztietan oinarri-oinarrizko bi dimentsio dago: bat **errelazionala** eta beste bat edukiekin zerikusi duena (**sustantiboa** deitzen dio). Diagnostikoan afinatzea; ekintza egokiak, egingarriak eta eragingarriak identifikatzea... arlo sustantiboari dagokio. Parte-hartzeak horretan ere lagunduko du: errealitatea nor hobeto ezagutu, errealitate hori bizi duena baino? Arlo errelazionala lantzea erlazioatzeko era berriak sortzen laguntzea da: administrazioaren eta elkarten artean, elkarten artean eta elkarten eta herritarren artean ere. Sare soziala sortzea da helburua.
  
- Parte-hartzeko esperientzia bat puntuala izan daiteke ala zerbait iraunkorragoa (jarraikorragoa): praktika batzuk uneak dira eta beste batzuk prozesuak. Prozesuak egunegun eraikitzen dira: protagonistek eraikitzen dituzte. Prozesuetan une ezberdinak egoten dira: une batzuetan prozesua irekitzea interesatzen zaigu, ahalik eta ikuspuntu gehien bilatzeko eta beste une batzuetan ixtea egokitzen zaigu (sintesia egin, kontsentsuak bilatu, ideia eta proiektu nabarmenenak identifikatu,...). **Prozesuak ez dira linealak**: ziklikoak dira, espiral formakoak,... Gorabeherak ere izaten dituzte: pausu bat aurrera, bat atzera,... Zirkunstantziak aldatzen dira, baldintzak, protagonistak... Honetaz ohartzea desanimoauren aurkako txertoa ere bada.

Protagonisten inguruan:

- Prozesu parte hartzailea abian jartzen dugunean hiru jende eta erakunde multzo bereizten dituzte: **gu, gureak eta haiek**.
  - Gu: lehen-lehenik elkarteak eta antolakundeak edo elkarte eta antolakunde horietan dauden pertsonak agertzen dira. Ezagunak izaten dira, beste esperientzietan egon dira, haiekin egoteko aukera izan dugu aurretik ere.
  - Gureak: prozesura hurbildu edo erakarri nahi genukeen jende-multzoa. Elkarteak nolabait hauen ordezkari edo horien interesen defendatzaile sentitzen dira.
  - Haiek: ez dira gureak, aliatuak izan daitezke ala ez.
  
- Lidergoa partekatu behar da. Hori horrela:
  - Lidergo politikoa agintari politikoei ez ezik elkarteetako ordezkariari ere dagokie.



- Edozein kasutan ere lan teknikoa eta politikoa bereizi beharra dago. Pertsona edo talde batek lidergo politikoa izateak ez du esan nahi prozesu teknikoaren gainean ere lidergo berbera eraman ahal edo behar dezaketenik.
- Lidergoa eta pertsonalismoa ez da gauza bera. Ahal dela lidergo kolektiboak eta partekatuak bilatu behar dira. Lidergorik onena lidergo berriak sortzea ahalbidetzen duena da.

Prozesuaren inguruan:

— Proiektuak **ondo planifikatua** egon behar du, baina era berean **malgua** izan behar du. Proiektuan inplikatu aurretik bi eratako azalpenak eskatuko dituzte:

- Proiektuaren antolaketari buruzko xehetasunak: zenbat jendeke parte hartuko duen, nortzuk (gutxi gorabehera besterik ez bada), bilerak egingo diren, tailerrak,... lan egiteko metodologia zein izango den, zenbat aldiz bilduko diren, zenbateko lana eskatzen. Aldez aurretik finkatu eta esan ere esan behar zaie, hala ere, margen nahikoa behar dugu aurreikusi gabeko arazoen aurrean erreakzionatzeko, zailtasunak gainditzeko, errealitate lokalari hobeto egokitu ahal izateko.
- Euren paperari buruzko argibideak eskatuko dituzte: haiengandik zer espero den, beren iritzia eta proposamenak kontuan hartuko diren eta nola<sup>2</sup>,...

— **Gatazkari** eta kontsentsuari buruzko kultura arrisku bat izan daiteke parte-hartzea bultzatzeko orduan. Prozesuko partaideek interes eta helburu propioak dituzte: batzuetan konbergenteak eta beste batzuetan dibergenteak. Adostasun eta ezadostasun horiek ibilbide osoan zehar agertuko dira, hasieratik amaierara, eta hori ez da txarra. Kontsentsuak bilatu behar dira, baina kontsentsua ez da erabateko atxikipena izango, ezta inamobilea ere. Oscar Rebollok esaten duen bezala *"no se le puede exigir al consenso que se convierta en inquebrantable y definitiva adhesión"*. Horrelako jarrera batek hasiera-hasieratik baldintzatu dezake proiektuaren jarraipena bera ere.

---

<sup>2</sup> Proposamen eta iritzi guztiak entzun behar diren lekuan entzungo direla ziurtatu ahal dugu. Ezin dugu bermatu, ordea, proposamenak bere horretan onartu eta azken dokumentura pasatuko direla, ezta partaide guztien kontsentsua lortzen duten kasuan ere. Proposamenak filtroak izan, izango dituzte: teknikoki posiblea den ala ez, ekonomikoki bideragarria den ala ez eta politikoki udalak berea egiten duen ala ez. Edozein kasutan ere oso presente izan behar da proposamen guztiei erantzuna eman behar zaiela eta kasu guztietan eman behar diela azalpenak.

## Parte-hartzerako metodoak


Metodoei buruz ere luze jardun dute Oscar Rebollok eta Joel Martik. Pausuz pausu aritzen dira prozesu parte-hartzailea antolatzeko prozesua lau fasetan definitzen. Faseak honakoak dira:

1. Prozesuaren antolamendu instituzionala eta metodologikoa
2. Diagnostiko partekatua
3. Gai kritikoen azterketa
4. Programazioa eta ekintza plana atondu.

Eskema hau erabili dugu gure lanaren ibilbidea antolatzeko. Testu honek hutsuneak eta gabeziak identifikatzen lagundu digu.

Lau faseko prozesu metodologiko honetan, une batzuetan prozesua ireki egiten dugu ahalik eta iritzi, diskurtso, proposamen edo ekarpen gehien jasotzeko eta beste une batzuetan prozesua itxi egiten dugu, konkretatuz joateko eta alternatiba ezberdinen artean egokienak aukeratzeko (sintesi faseak dira horiek).

Grafiko honen arabera azaltzen dute prozesua:



Fase bakoitzaren inguruan, hainbat ezaugarri hauek zerrendatu eta nabarmendu dituzte. Orriotara laburpen bat ekarri dugu.

Hona hemen.

### Prozesuaren antolamendu instituzionala eta metodologikoa.

- **Abiapuntua:** Abiapuntuak erabaki politiko baten ondorioa izan behar du. Prozesuaren hasierako galderak politikoak dira: zer eta zergatik? Zertarako? Nolako emaitzak espero dira? Gutxieneko adostasuna eraiki behar da bai helburuaren eta bai prozesuaren gainean. Besterik ez bada ere, eragile nabarmenen kontsentsua bilatu behar da. Alferrik saiatuko gara honelako prozesu bat abian jartzen, horretarako interes minimorik ez badago.
- Une egokia da **gaiarekiko hurbilpen teorikoa** egiteko. Esan izan da, prozesu parte-hartzaileetan ezagutza praktikoa aktibatzea dela helburua. Ezagutza teorikoak ezagutza praktikoa elikatzeko balio behar du.
- **Proiektua** bera diseinatu behar da: erabiliko diren estrategiak, alegia: noiz eta nola. Horretarakoko ezaugarri hauek gomendatzen dituzte:
  - Estrategia malgua: helburuetara bideratua baina ezustekoei aurre egiteko modukoa.
  - Testuinguratua eta lekuan lekuko dinamiketara egokitua.
  - Erritmoak eta epeak komunitatera egokituak

### Diagnostiko partekatua

Helburua da kontsentsua eraikitzea. Hasiera batean ezadostasunak jarriko dira agerian... ikuspuntuetan sakondu ahala ikuspegi bateratuak agertuz joango dira. Komunikazioak ere aparteko garrantzia du; azken batean komunikazioa da parte-hartzearen oinarrietako bat.

Honako eginkizun hauek hartu behar dira kontuan:

- Talde eragilea sortu, prozesua bultzatuko duen taldea, alegia. Berdin dio prozesuaren lehen inplutsoa edo ideia nondik sortu den, interesgarria da prozesuaren bultzatzailea ahalik eta talde anitzena izatea.

- Aurkezpen publikoa egin eta jarraipen batzordea sortu. Komunikazio-lana prozesuaren amaierarako uztea akatsa da. Prozesu osoan zehar komunikazio-kanal arinak eta jarraikiak sortu behar dira; komunikazioa lehen, bitartean eta gero bermatu behar da.
- Bigarren eskuko informazioa jaso. Eskuragarri dagoen informazioa bildu behar da. Komeni da informazio-uholderik ez sortzea: hobe ahalik eta informazio praktikoena biltzea eta ondo antolatzea. Gerora ere informazio hori osatzeko aukera egongo da.
- Landa lan kualitatiboa ezagutza praktikoa biltzeko unea da: batetik lekuari eta gaiari buruzko informazioa eta bestetik gaiarekiko ikuspegi eta diskurtso ezberdinak. Gomendioa da elkarrizketetatik hastea (ordezkari instituzionalak, teknikariak, elkarreketako ordezkariak,...) eta jarraian talde-mailako teknikak erabiltzea (eztabaida-taldeak).
- Honen guztiarekin diagnostiko-txostena atontzea.

### Gai kritikoaren azterketa

Diagnostikoan zehar sortu diren puntuak, ideiak, kezak,... bildu eta sistematizatu ondoren informazio hori guztia informazio horren jabeei (sortzaileei) itzuli behar zaie. Itzulketak hiru helburu behar ditu:

- (a) informatiboa: egin denaren berri ematea
- (b) hezitzailea: ezagutzan eta ikuspegietan sakontzea
- (c) sortzailea: planteatu diren errorei aurre egiteko alternatibak eskaini.

Txostena erabilgarria izan behar da: ez luzea, modu pedagogikoan azalduta,... Diagnostikoa helmuga baino areago bigarren fasea abiatzeko abiapuntua da. Informazioa eta komunikazioa, beraz, erabakigarria da

Itzulketak fase honetan eztabaida-talderak egitea gomendatzen dute: diagnostikoa hobetzeko, informazio edo diskurtso berriak sartzeko, gaietan eta ondorioetan sakontzeko, gai kritikoak identifikatzeko, esku-hartzeko arloak identifikatzeko eta alternatibak sortzeko... Talde mailako sorkuntza erabiltzea etorkizuneko lan-ildoak eta helburuak definitzeko, alegia.

### Programazioa eta ekintza plana atondu.

Helburuetatik eta lan-ildoetatik programazioetara pasatzeko garaian **ekintzak definitu** behar dira. Prozesua ixteko eta zehaztapenak zedarritzen joateko unea da. Une gorabeheratsua izan daiteke oinak lurrean ondo jartzeko beharra ere badagoelako. Ekintzak maila teknikoan ere definitu behar dira: teknikoki egokiak eta ekonomikoki bideragarriak ote diren aztertu; ahaztu gabe ekintzek agintari politikoen onarpena ere behar dutela.

Egindakoa **itzuli eta zabaldu**: zer egingo den ezagutzera eman, bakoitzaren asmoak, erabakiak eta konpromisoak,... Komunikazioa, berriro ere: prentsaurreko aurkezpenetatik harago (baina hori ere bai).

Berriro ere **prozesua ireki**: zertarako? programazioa abian jartzeko eta jarraipena eta ebaluazioa bermatzeko. Bi giltzarri dago hor erabakitzeko:

- Aurreko faseetan sortu diren lan-espazio horiei nolako jarraipena eman erabaki behar da. Hainbat erabaki dago tartean: partaide guztiekin eta bakoitzarekin zer-nolako harremana bideratu behar den, bakoitzak zein paper jokatu duen planaren garapenean, koordinaziorako egiturarik egongo ote den,...
- Jarraipena eta ebaluazioa nola egin. Egia da adierazle objektiboak sortu behar direla baina baita inplikaturata dauden pertsonen (eta eragileen) pertzepzioak eta iritzia jasotzeko bideak ere. Biak ala biak dira beharrezkoak eta elkarri elikatu beharko diote.

## 5. GASTEIZEN EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA.

### BEGIRADA BAT

#### Lehen urratsak

Lehen ere azaldu dugun bezala Eusko Jaurlaritzak 1999an onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) eta bertan hurrengo 10 urteetako erronkak definitzen ziren. Eusko Legebiltzarrak, plana berrestez gain, EBPN Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan eta udal handietan (5000 biztanletik gorako udalerrietan) garatzeko oinarrizko irizpideak aztertze eskatu zuen. 2001eko abenduan orduko Kultur Sailburuak zinegotzi ordezkariari Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren dokumentua eman eta plana Vitoria-Gasteizen garatzeko eskaera egin zion.

Udalbatzak 2002ko urrian aho batez onartu zuen bai Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta bai Euskararen Erabilera Biziberritzeko Plan Nagusia hirian abian jartzea. Bigarrenari buruz, honako balorazioa egiten zen bertan:

*Dokumentu estrategikoa da, hizkuntza normalkuntzan aurrera egiteko pentsatua, eta hiru kontu nagusi planteatzen dituena: lortu beharreko helburuak adostea, euskarari zuzendutako aurrekontuak aztertu eta lehentasunak finkatzea eta, azkenik, erakunde publikoen arteko koordinazioa hobetzea, bai eta euskararen esparruan lan egiten duten enpresa eta elkarteekiko harremanak bideratzea ere.*

Prozesua abian jartzeko erabakiak hasiera baten oihartzun txikia izan zuen. Gerora, ordea, bat baino gehiago harritu zuen erabakiak batez ere Udaleko indar-korrelazioa ikusita. Egon zen jauzi kualitatiborik ikusi zuenik baina batez ere mesfidantzak egon ziren.

Zaila egiten zait udalaren eta euskalgintzaren artean ordura arte egondako harremanak definitzea. Azken harreman formal egituratuak egun indarrean dauden udal ordenantzak diseinatzeko orduan izan ziren. Oker ez banago, ponentzia bat osatu zen ordenantzak eztabaidatzeko eta hasiera bateko eztabaidak gutxira mikaztu egin ziren eta lan-mahaia bertan

behera geratu. Horrez geroztik, harremanak puntualak izan dira edo programa espezifikoen gainekoak. Programa espezifikoen gainean lankidetzak egon da (garai batzuetan gehixeago, beste batzuetan gutxiago). Esango nuke, hala ere, lankidetzak hori ez dela inoiz oso entusiasta izan, baina agian nire pertzepzioa besterik ez da.

Mesfidantzak, ziur aski, egoera horretatik datoz eta, egia esanik, behin baino gehiagotan sentitu dugu mesfidantza horiek lana baldintzatu ez ezik oztopatu ere oztopatzen zutela.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eta Euskararen Normalizazio Planaren arteko uztardura ere puntu interesgarria da. Plana abian jartzeko erabaki hartu zen bileraren aktan bertan anbigutasun puntu bat antzeman daiteke: batetik Euskararen Normalizazio Plana Euskara Biziberritzeko Planaren barruan garatu beharreko parte bat dela onartzen delako, eta bestetik bi plani buruz hitz egiten delako. Anbigutasun hori gerora ere bere horretan mantendu da eta gaizki ulertze bat edo beste sorrarazi.

Interesgarria da aipatzea plangintzaldi honek gutxi-asko hiru legegaldi hartu dituela: 1999-2003 tartean plana abian jartzeko erabakia hartu zen, planaren parte handiena 2003-2007 tartean gauzatu da eta hirugarren legegaldi honetan egindakoa ebaluatu eta hurrengo plana abian jarri beharko dugu. Udalaren barruan indar-korrelazio ezberdinak egon dira, alkatetza bera ere bi talde politikok izan dute (PP-k izan zuen lehen bi legealdietan eta PSE-k azken honetan). Hori horrela garrantzia handikoa izan da udalean euskararen gaia lantzeko orduan indar politikoen arteko oinarritzko adostasuna bermatzea.

Aurrera egiteko hurrengo pausua Euskararen Sektore Kontseilua sortzea izan zen. Sektore Kontseiluaren barne araudiak berak dioen bezala *“kontsulta eta irizpen organo gisa sortu zen, beren jardueraren xedetzat euskara defenditu eta sustatzea duten herritar elkarte eta taldeen proposamenak jaso eta partehartzea bideratzeko”*. Euskararen Sektore Kontseiluak beste herrietan antolatu izan den euskararen aholku batzordearen papera jokatu behar zuen. Kontseilu izaera eman zitzaion udalaren beste arloetan ere horrelako organo kontsultiboak osatzen ari zirelako.

2003ko urrian egin zen Euskararen Sektore Kontseiluaren lehen bilera eta horretan bertan EBPN bideratzeko hasiera-hasierako jardunbidea aurkeztu zuen udalak. Guri dagokigunez, une izan zen plana abian jartzeko prozesuaren abiapuntua.

Egiturarekin jarraituz, aurreikusten zen lan berriari aurre egiteko, Euskara Zerbitzua handitzeko erabakia hartu eta egungo dimentsionamendua eman zitzaion: zerbitziburua, lau itzultzaile, bi administrari (egun 3), 2 teknikari barruko zein kanpoko planen gestiorako eta 3 teknikari barruko

planaren baitan dinamizazio eta trebakuntza lanetan. Gerora zenbait aldaketa egon da funtzionamenduan baina oinarri-oinarrrian ez da aldatu orduko dimentsionamendua.

Gaur egun ikusita, iruditzen zait bakoitzak bere esperientziatik eta bere historiatik lan egin zuela. Irudipena dut, Euskara Zerbitzua bera ere kontsolidatzeko astirik ezean, inprobisatu ere dezente inprobisatu genuela. Agian talde mailako gogoeta eta argitze-lan baten falta egon zen garai horretan.

### *Prozesuaren antolamendu instituzionala eta metodologikoa.*

Esan bezala, Sektore Kontseiluaren lehen bileran bertan aurkeztu zen EBPN garatzeko jarraibide metodologikoa. Aipagarria da lau bilera behar izan zirela metodologiari buruzko kontsentsu minimo bat lortzeko. Horrek proiektuaren hasiera atzeratu zuen eta gerora presaka ibili beharra ere eragin zuen.

Kanpoko enpresekin lan egin dugunean kexua entzun dugu behin baino gehiagotan administrazioaren erritmoak zurrin samarrak direla. Garai hartan garbi genuen planaren testua 2004an onartu behar genuela 2005ean bertan lanean hasi ahal izateko: planerako baliabideak 2005 urteko aurrekontuan jaso ezean, praktikan horrek urtebeteko atzerapena eragingo zuen-eta.

Diseinua arintze aldera plana arloz arlo onartzeko aukera ere aztertu zen. Planak orotara 6 arlori buruzko ekintza-plana aurreikusten zuenez, hiru arlori dagokion plana 2004an onartzea eta beste hiruak 2005ean. Ez zen oso irtenbide ortodoxoa eta berehala baztertu zen.

Metodologia negoziatzeko prozesu horretan xehetasun askotxo eskatu zitzaigun, nolabaiteko beldurra sumatu zen detaile guztiak ondo lotu gabe prozesuari baietza ematea udalari txeke zuria ematea ez ote zen. Halaxe adierazten du kideetako batek:

*“(...) Sektore Kontseiluan metodologia adosteko ahaleginetan ari ginela.... une hartan, nik uste dut euskalgintza beldur zela PP ez ote zebilen euskalgintzari txeke txuri bat sinarazi nahian; hortik hainbat eta hainbat mesfidantza hasierako ditxosozko metodologia hura adosteko.”*

Mahai gainean jarri ziren gai nagusiak honakoak izan ziren:



- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoa uztartzeko ahaleginak hasiera-hasieratik egitea eskatu zen. Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoa, azken batean (eta gehiegi sinplifikatzeko arriskua bada ere) hitzarmengintza proiektu bat da, non enpresek, elkarteek eta bestelako entitateek euskara normalizatzeko konpromiso zehatzak hartzen dituzten. Hitzarmengintza, beraz, oinarri-oinarrizko estrategiatzat jotzen zuten. Helburuen artean, beraz, honakoa proposatu zuten: *“Gasteizko eragileek ere prozesu honetako protagonista izatea eta konpromiso zehatzak bere egitea”*.
- Euskalgintza ez ezik gizarte mailako bestelako eragileekin ere lan egin beharra azpimarratu zuten.
- Aurrekontua ondo zehaztea eskatu zen, bai lehen urteari zegokiona, baita plangintzaldi osoari buruzko aurreikuspena ere.
- Erabakitzeko ahalmenari buruz galdetu zen. Bi kontu argitzea eskatu zen: batetik, lan-mahaietan egindako proposamenek nolako indarra izango zuten; eta bestetik, une batean lehenetsiak zehaztu behar baziren eta horren arabera programa batzuk hobetsi eta beste batzuk bertan behera utzi, lehenetsiak nork, nola eta noiz zehaztuko ziren. Bermeak eskatzen zituzten *“han proposatzen zen guztia aurrera eramango zela”*.
- Euskara Zerbitzuak prozesuaren ardura bere gain hartzen bazuen, Udalaren gainontzeko sailek eta zerbitzuek nolako konpromiso hartuko zuten galdetu zen.
- Galdetu zen halaber ebaluazioa nola egingo zen, kanpo auditoriarik egiteko borondaterik ote zegoen eta nolako adierazlerik egongo zen.
- Komunikazio arloan egiten zen planteamendua kritikatu zen, minimoak betetzera mugatzen zelakoan. Gizarteak prozesuaren eta planaren berri izan behar zuela azpimarratu zuten eta susmo txarra hartzen zioten komunikazio-planteamendu handiagoa ez egiteari. Euren ustez *“prozesu hori guztia isilpean gorde nahi zela ematen zuen”*.

Printzipioz puntu hauei guztiei ahalik eta erantzun egokiena ematen saiatu ginen, eta printzipioz guztiak kontuan hartu ziren, horietako asko proposamen zehatzak ez baziren ere. Lehen fase hauetan agertu ziren kezka batzuk gerora ere agertu dira forma batean ala bestean (erabakitzeko ahalmenari buruzkoa eta komunikazio-lanari buruzkoa dira esanguratsuenak).

Bitartean prozesu osoan zehar dinamizazio eta idazkaritza lanak egiteko aholkularitza enpresa baten zerbitzua kontratatzeke deialdia egin zen. Bi proiektu jaso eta Elhuyar elkartearena

hobetsi zen. Oinarri-oinarrian bi proiektuek betetzen zituzten Euskara Zerbitzuaren eskakizunak. Honakoak, alegia:

- EBPNren diseinua metodologia parte-hartzaile baten arabera diseinatzeko proposamena egin behar zuten.
- EBPNren arlo nagusiak sei multzotan bildu behar ziren eta lan-mahai bana osatu.
- Lana ahalik eta arinena izan behar zen. Ahal zela, lan-mahaietako lana bi bileretara mugatu behar zen: lehengoan euskararen egoeraren diagnostikoa egin, eta bigarreanean ekintzak proposatu.

Esan bezala, Elhuyar enpresaren proposamena onartu zen. Honako puntu hauek baloratu ziren bereziki:

- Eztabaida eta kontrastea lan-mahaietako partaideengandik harago eramateko planteamendua egiten zuten. Planteamendu horren arabera partaide bakoitza berri-emaile sare txiki baten erdigune bilakatzen zen. Izan ere, bakoitzak hiru pertsonari informazioa eman behar zion eta hiru pertsonaren ekarpenak bilatu.
- Huts-hutsetik abiatu beharrean, programazio faserako, euren lanaren eskarmentua mahai gainean jartzeko aukera ematen zuten: beste udalerrietako ekintza bilduma aurkeztu, eragileek ideiak hartzeko.
- Lan-mahaietako lana amaitu ondoren, emaitza aditu-talde bati helaraztea proposatzen zuten, horiek azken emaitzari iruzkinak eta ekarpenak egin ahal izateko. Aditu “independentek” izan behar ziren: euskararen normalizazioa beste instituzioetatik, enpresetatik edo unibertsitatetik lantzen zutenak.
- Gasteizko egoera gehiegi ez kontrolatu arren, proposamenak egiten zituzten lan-mahaietako partaideak zeintzuk izan zitezkeen: proposamen batzuk oso interesgarriak iruditu zitzaizkigun.
- Plana onartu ondoren, alorrez alor, egitura baten proposamena egin beharra aipatzen zuten: diseinuan bertan gerora nolako jarraipena emango zitzaion aurreikusteko beharra, alegia.

Elhuyar elkarteak prestigio handia du euskalgintzan. Uste dugu Elhuyar tartean egoteak

dezente lagundu zuela hainbat mesfidantza uxatzen. Gure ustez, erabakigarria izan zen metodologiari buruzko oinarri-oinarrizko adostasuna lortzeko.

Dena den, adierazgarria da, oro har metodologiari buruz ezadostasunik ez egonik ere, ez zela metodologia-txostenaren aldeko adierazpen espliziturik lortu.

### Diagnostiko partekatua

Lehen esan bezala EBPnren arlo nagusiak 6 multzotan bildu ziren eta lan-mahai bana osatu zen: (1) euskalduntze-alfabetatzea; (2) hezkuntza eta familia bidezko transmisioa; (3) aisialdia eta kirolak; (4) kultura; (5) arlo sozioekonomikoa; (6) komunikabideak, publizitatea eta teknologia berriak. Mahai bakoitzean arlo horretako eragile nagusiak gonbidatu ziren, 12-15na partaide. Mahai bakoitzean Elhuyarreko teknikariez gain, Euskara Zerbitzuko teknikari batek eta Sektore Kontseiluan parte hartzen zuen euskalgintzako taldeetako ordezkari batek ere hartu zuten parte. Lan mahai horiek bina bilera egin behar zuten: lehengoa diagnosirako eta bigarrena ekintza-proposamenak egiteko.

Lehen bilera deitu aurretik, arloz arloko diagnosi sektorialak idatzi ziren. Ahal izan zenean, Euskara Zerbitzuan bertan eskura genituen informazioarekin idatzi ziren. Beste kasu batzuetan, sektoreari buruz gure ezagutza eta genuen informazioa txikiagoa zen kasuetan, elkarrizketak izan genituen sektorea ondo ezagutzen zuen jendearekin. Gehienetan udaletxean bertan arlo horietan teknikari ari ziren pertsonekin bildu ginen horretarako (kirola, kultura,...) baina beste kasu batzuetan kanpora jo behar izan genuen informazio bila. Teknikari horietako batzuk lan-mahaietan parte hartzera ere gonbidatu genituen. Esan behar da, bestalde, ahalegin handia egin genuela, euskararen egoera ez ezik, sektorearen beraren egoera ere aztertzen eta diagnostikatzen.

Arloz arloko txosten horiek aurretixostenak-edo ziren, lan-mahaietan parte hartu behar zuten pertsoneri banatu nahi genien, guztiok oinarri-oinarrizko informazio eta ikuspuntu komun bat izateko. Guretzako informazio asko eta garrantzitsua biltzen zuten baina agian ez ziren egokiak lan-mahaietan lantzeko: luzeegiak-edo. Kasu batzuetan Elhuyar berak erabaki zuen ez banatzea, beste kasu batzuetan laburpenak egin genituen eta horiek banatu. Esan bezala, helburuetako bat zen partaideak aldeztu aurretik gaiari buruz pentsatzen jartzea. Ez zen lortu. Hainbat ordezkariaren partaidetza lan mahaietan parte hartzera mugatu zen; aldeztu aurretik gaia landu gabe, eta gero eskatzen zitzaizkien kontrasteak egin gabe.

Talde bakoitzean 12-15 kide behar zen. Kide horien baietza lortutakoan mahaiaren osaketa

bukatutzat eman genuen. Esperientziak erakutsi digu baietza emanda ere —gauza batengatik edo besterengatik— pertsonen %20 ez dela gero bilerara agertzen.

Deialdiak ondo zaindu ziren. Lehen harremana Euskara Zerbitzutik bertatik egin zen: proiektua azaldu eta bertan parte hartzeko prestutasuna ikusi behar zen (bakoitzeko bizpahiru dei behar izan genuen horretarako). Ondoren, Elhuyarrek berak e-postaz deialdia eta materiala bidali zien eta bilera baino egun batzuk lehenago telefonoz deitu beren asistentzia konfirmatzeko... eta hala ere batzuetan huts egin. Elhuyarreko teknikariek esan zigutenaren arabera emaitzak ontzat emateko modukoak izan ziren: beste herrietan, beste prozesuetan parte-hartzearen tasa are txikiagoak izan baitira. Etortzea baieztatu ondoren askotxo izan ohi dira bileretara agertzen ez direnak.

Zalantzak izan genituen Euskara Zerbitzuko teknikarien papera lan-mahaietan zein izan behar zen: bazterrean geratzea zen aukera bat, beste aukera bat zen Elhuyarreko teknikariekin batera dinamizatzaille-teknikari papera jokatzeko edo azkenik partaide bat gehiago izatea. Azkena erabaki genuen, errezelo batzuekin, uste baikenuen udalaren ordezkari gisa ikusiko gintuztela eta eztabaidak polarizatzeko arriskua egongo zela. Ez zen horrela izan, talde guztiek normaltasun osoz onartu gintuzten. Esan behar da, gainera, lan-mahaietako dinamika dezente erlaxatua izan zela. Bakoitzak pentsatzen zuena esaten ari zela nabari zen, inolako mugarik eta inolako trabarik gabe. Jendea nahiko modu librean aritu zen, diskurtso “instituzionalizatuak” neurri batean baztertuz. Bigarren bilera egin zenean, ordea, proposamenak egiteko bileran, bakoitzak bere interesak defendatzeko joera handixeagoa izan zela iruditzen zait.

Lan-mahaietan parte hartu zuten hainbat pertsonak ere horren baliagarritasuna aipatu dute: lan praktikoa eta aberasgarria izan zen, gerora Sektore Kontseiluan mantentzen jakin ez duguna:

*“... gure ekarpena nabariagoa izan zen lan taldeetan diagnostiko eta ebaluazioa egiten ibili ginenean. Gure arloko jendearekin aritu ginen eta orduan bai nabaria hizkuntza berean ari ginela...”*

Lan-mahaiek 3-4 orduko bina bilera egin zituzten: lehena, nork bere alorrean euskararen egoera zein zen aztertzeko; eta bigarrena, proposamenak egiteko, egoera hori hobetze aldera. Orotara 70 pertsonak hartu zuten parte, alor bakoitzeko elkarte erreferentzialen izenean (euskaltegiak, hainbat ikastetxe publiko eta pribatu, aisialdi-elkarte batzuk, Merkataritza Ganbara, bi aurrezki kutxa, zenbait kirol federazio, hainbat komunikabide,...)

Sektore bakoitzean euskararen egoera aztertzeko bileran hiru langai izan ziren: (1) sektorean

euskara bultzatzeko praktikak zerrendatu ziren; (2) arazoak eztabaidatu (3) beharrak identifikatu eta (3) euskara sektorean bultzatzeko interesak eta motibazioak aztertu ziren. Bide egokia izan zen:

*“Prozesuaren hasieran metodologia adosteko unean izandako tira-biren ostean, diagnosia eta ekintzak proposatzeko ordua heldu zen, eta, orduan, Elhuyar taldeak ondo bideratu eta sustatutako metodologia bati esker, uste dut denok hartu genuela gure iritzia kontuan hartzen ari zelako sentsazioa. Lan polita eta emankorra izan zen”*

Bileretako aktak egin ziren. Aktak partaideei bidali eta bakoitzak bere erakundean, enpresan edo besterik gabe bere inguruan diagnosia kontrastatzeko konpromisoa hartu zuen. Konpromiso horiek gehienetan ez ziren bete. Gaizki gogoratzen ez badut, bi taldek besterik ez zuten kontraste hori egin. Aktak Udalaren web gunean ere zintzilikatu ziren, ekarpenak egiteko fitxa batekin batera. Hori horrela, edozein herritarrek zuen ekarpena egiteko aukera. Bide hori ez zen behar bezala publizitatu eta ez genuen lortu web gunean leku nabarmen batean jartzea. Bide horretatik ez zen ekarpenik jaso.

Informazio guztiak jasotakoan, diagnosi txostena osatu zen. Euskara Zerbitzutik, bestalde, interesa erakutsi baina parte hartzerik izan ez zuten 12 bat talderekin bildu ginen eta lan-mahaietako emaitzak haiekin kontratatu.

Diagnostikotik abiatuta, programazioa eta ekintza-plana proposatzen hasi aurretik, gai kritikoak identifikatu behar ziren eta gai kritiko horietatik helburuak eta lan-ildoak atera.

Dinamika hori lan-mahaietara eramatea arriskutsua iruditu zitzaigun, denbora askotxo eskatuko zuelako. Lan-mahaiaren bigarren bileraren erdia horretan emanez gero ikusten genuen ekintzak eta programak proposatzeko denbora gutxi geratuko zela. Prozesua luzatzeko eta hirugarren bilera bat egiteko aukera ere bazegoen baina ez zitzaigun egokia iruditu: batetik horrek epeak luzatzea ekarriko zuelako eta bestetik mahaietako partaideak erretzea ere izan zitekeelako. Bestalde, lehengo bileretako dinamika ikusita, helburuei buruz hitz egitea errepikakorra ere izan zitekeela iruditu zitzaigun, azken batean diagnostikoarekin batera lan-ildoak ere dezente perfilatu baitziren.

Hori horrela, gai kritikoak identifikatzeko bi iturri erabili ziren:

Batetik diagnostikoak perfilatzen zituen hainbat ondorio nabarmendu ziren. Batez ere hiru:

1. Hirian euskaldun berrien kopurua duen garrantzia: 4 euskaldunetatik 3 euskaldun berriak dira, eskolan edo euskaltegian euskaldunduak, alegia. Horietatik gehienak belaunaldi berrietan. Hori horrela, hartu beharreko neurriak eta politikak ikuskatzerakoan kontuan hartu behar da euskaldun berrien kopurua eta haur-gazteen artean dagoen euskaldun kopurua.
2. Oraindik ere euskaldunen kopurua handitu beharra dago. Horretarako lehentasunezkoa da sentsibilizazioa eta informazioa lantzea
3. Herri jendetsua izaki eta euskaldunak gutxi, garrantzitsua da herritarrak harremanak euskaraz izateko guneak eta aukerak sustatzea. Beste era batera esanda, garrantzitsua da euskaraz egiteko aukera estrukturalak bultzatzeko egitasmoak indartzea.

Bestetik, Elhuyarreko teknikariek lan emankorra egin zuten lan-mahai guztietan esandakoak aztertzen nahiz interpretatzen eta gai kritiko horiek identifikatzen. Honakoak izan ziren:

- Sentsibilizazioa
- Eskaintza – eskaera
- Erabilera
- Baliabideak
- Koordinazioa

Izan ere, bost gai horiek era batean edo bestean lan-mahai guztietan azaldu baitziren.

- Sentsibilizazioaren ardatzaren barruan, euskarak ez duen prestigioaz hitz egin zen, euskaldunon jarrera pasiboari buruz, euskararekiko konpromiso faltari buruz, eduki beharko lukeen zentralitateaz,... Oro har behar-beharrezkoa ikusten zen inplikazio instituzionala, euskarari zentralitatea eta prestigioa emateko.
- Eskaintza – eskaera planteamendua indar handiz agertu zen, nolabaiteko gorpil zoroa aipatuz: jendeak ez du euskarazko produkturik edo zerbitzurik eskatzen eta entitateek, beraz, ez dute eskaintzen. Lehenik eskaintzan eragin beharra dago eta bigarrenik eskaera sortzeko ahaleginak egin.
- Erabilera. Arazo larriak. Euskararen lekua testimoniala da leku gehienetan. Oso leku, entitate eta elkarte gutxi dira euskarazko erabilera erdi-normalizatua dutenak.
- Baliabideak. Gutxi. Inbertsioak handitu behar dira.

- Koordinazioa. Ahalegin dispersioarekin amaitu beharko litzateke, indarrak batu eta sinergiak sortu.

Datu kuantitatiboekin eta lan-mahaietako ondorioekin diagnostiko-txostena osatu zen eta Lehendakaritza Batzordean aurkeztu. Lehendakaritza Batzordeak oniritzia eman zion. Sektore Kontseiluan diagnostiko txostenaren aurkezpena egin zuen Elhuyar elkarteak.

Esan bezala diagnostikoa hainbat aditurekin ere kontrastatu zen eta ontzat eman. Zerbait aipatzekotan Iñaki Mtz de Lunak egiten zizkigun ekarpenak:

- *Formazio soziolinguistikoaren premia euskararen normalkuntza ondo ulertzeko: euskalgintzako eragileek zein hiritarrek euskara berreskuratze prozesuaren ikuspegi osoa izan behar dute, egindako bidea eta gauden unea prozesuaren konplexutasunaren baitan ondo ulertzeko. Soilik horrela saihesta daitezke sarri agertzen diren etsipena edota gehiegizko eskaerak. Baita hizkuntz eskubideen gaineko formazioa ere.*
- *Gasteizen euskarak dituen baldintzak lan mardula dago egiteko, baina indarrak eta baliabideak, aldiz, oso mugatuak. Horregatik, diseinu estrategiko zentzuduna eta zorrotza egin behar da, dauden aukera mugatuak ahalik eta modu eraginkorrenean erabiltzeko. Hau, 'Pernandoren egia' bada ere, euskaltzale sutsu batzuei ahaztu egiten zaiela esango nuke, den-denari aldi berean heldu nahirik dabilta eta. Lehendabizi, estrategikoki haututako jomuga gutxi batzuen inguruan bildu beharko lirateke indar guztiak, horiek behin lortuta beste batzuetara pasatu ahal izateko.*
- *Bi neurri zehatz hartuko nituzke abiapuntutzat: a) euskaltzaleen eta euskararen eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana; b) euskararen komunitatearen barne eta kanpo komunikazioa (ekimenen komunikazio zabala eta euskarazko jardueren agenda bateratua...). Bi puntu horietatik abiatuta, nahiz eta baliabideak oraingo berdina izan, euskararen presentzia publikoa asko areagotuko litzateke, horren ondorioz euskararen komunitatea eta jendaurreko euskararen irudia sendotuz eta areagotuz.*

Ez genuen asmatu balorazio hauek diagnostiko-txostenean ondo kokatzen baina kontuan izan ziren helburuak eta lan-ildoak baina uste dut ekintza-planean . Hala ere, uste dugu ekintza-plana egiteko orduan dezente ondo plasmatu zirela.

## Programazioa eta ekintza plana atondu.

Bigarren lan-mahairako deia egin zen. Diagnostiarekin batera Elhuyar berak helburu orokor posibleak proposatu zituen, diagnosietan eta EBPNren helburuetan oinarriturik. Horiek ontzat eman ondoren, helburuei begira, egoerari buelta emateko ekintza posibleak zerrendatu ziren. EBPNren ekintza-zerrendak eta beste plan estrategikoetakoak erabili ziren lan-taldeetan blokeoak sortzen zirenean.

Kultura arloko lan-mahaia bertan behera uztea erabaki zen. Izan ere, diagnostikoaren fasean euskarazko sorkuntzarekin zerikusirik zuen jenderik ez baitzen agertu eta hor agertu ziren pertsonak eta elkarteek berdin-berdin lekua izan baitzezaketen aisialdiaren arloan ere. Era horretan aisialdia oso modu zabalean egituratua geratu zen: lanean (edo eskolan) eta familian ematen ez dugun denborako jarduerak osatzen zuten. Bigarren bilerarako bost lan-mahai besterik ez zen egon, beraz.

Metodologikoki lan-mahaietako jardunak honako atal hauek izan zituen:

- Diagnostikoa adostu (aurreko bileraren ondorioak, alegia).
- Helburu eta ildo estrategiko posibleak aurkeztu eta aukeraketa bat egin. Helburu eta ildo estrategiko horietako batzuk EBPNtik atera ziren eta beste batzuk lehen bileretatik.
- Ekintzak proposatu.

Kasu gehienetan denbora aldetik oso-oso larri ibili ginen. Lehen bi ataletan dezente luzatu eta azken puntua azkar eta presaka landu genuen.

Elhuyarrek eta Euskara Zerbitzuak lan-mahaietan esandakoak eta proposatutakoak batera aztertu ondoren, txostenak idatzi ziren. Teknikoki bideragarriak iruditzen ez zitzaizkigun proposamenak egokitu egin ziren. Proposamenak idazteko orduan ekintza solteen bidea baino programak osatzearen aldeko apustua egin genuen.

Orri hauetan ez du merezi arloz arloko ekintza zerrenda osoa azaltzea. Oro har esan daiteke, honako lan-ildo hauek onartu zirela:

- Sentsibilizazioa eta komunikazioa landu, bai kanpaina orokor baten bidez, bai kanpaina sektorialen bidez: euskaltegietako matrikulazioa, euskararen erabilera aisialdian,...



- Euskalduntze alorrean dauden programak (diru-laguntzak, gurasoentzako ikastaroak) elkarlanean ebaluatu eta egoki ikusten diren hobekuntzak inplementatu.
- Egungo programekin batera, lehentasuna eman bi kolektibo euskalduntzeari: hurrekin eta gaztetxoekin lan egiten duten profesionalak eta elkarrekin kideak (begiraleak, entrenatzaileak,...), eta merkataritzako zein ostalaritzako profesionalak.
- Kulturean, aisialdian, eta kirol alorrean euskaraz dagoen eskaintzaren mapa egin eta hobekuntzak proposatu (bai kuantitatiboak eta bai kualitatiboak)
- Kulturean, aisialdian, eta kirol alorrean euskaraz dagoen eskaintzaren zabalkundearen lan egin.
- Ikastetxeekin lan egin, eskola orduz kanpoko jardueretan euskararen presentzia handitzeko.
- Plan integrala egin merkataritzan euskararen erabilera handitzeko: hitzarmenak, hizkuntza zerbitzuak eskaini, ikastaroak antolatu,...

Dokumentuak, gure ustez, ondo jaso zituen lan-mahaietako ideiak eta proposamenak.

Txosten osoa banatu zen eta alegazioak egiteko hilabeteko epea eman zen, dokumentua eta alegazioak Lehendakaritza Batzordean aurkeztu aurretik.

Hiru alegazio multzo jaso genuen:

- Zuzenketa puntualak. Ekintza berriak proposatzen zituzten edo ekarpen zehatzik egiten zioten dagoeneko planteatuta zeuden ekintzei. Horietako batzuk (askotxo) sentsibilizazio-ekintzen dimentsionamenduari lotutakoak ziren.
- Gasteiz izan talde politikoak udalaren hizkuntza politikoari buruzko balorazio batekin batera zuzenketa-multzo bat aurkeztu zuen. Besteak beste, honako hauek proposatzen zuten:
  - Udal haur eskoletan praktikan egungo eredu-sistema gainditzea.
  - Diskriminazio positiboaren kontzeptua hainbat alorretara eraman: hizkuntza paisaian, udalaren kulturako eta aisialdiko eskaintzan,... euskarari lehentasunezko lekua emanik.

- Euskararen normalizazioan udalaren aurrekontu osoaren %2 erabiltzea.
  - Udal ordenantzak berregitea, Biziberritze Planaren arabera berdefinitzeko.
- AEK-k 165 zuzenketa-proposamena aurkeztu zuen. Hasierako 25ak hainbat sindikatuk eta alderdi politikok sinatu berri zuten Akordio Soziopolitikoaren<sup>3</sup> testuari zegozkion. Gainontzeko zuzenketak beste dokumentu batetik atereak ziren: LKS enpresak Donostiako Euskara Patronatuaren enkarguz egin zuen lan batetik, alegia. Esan behar da lan horren mamia katalogo bat egitea zela; hau da: alorrez alor euskararen normalizaziorako abian jar zitezkeen ekintza GUZTIEN zerrenda bat osatzea.

Lehenago bi multzoekin ez zegoen arazo berezirik. Arazoak hirugarrena sortzen zituen. Interpretazio ezberdinak egin zitezkeen. Guk une horretan garbi ikusi genuen alegazio horiek helburu sinbolikoagoa zutela praktikoa baino: kontua ez zen hobekuntzarik proposatzea, prozesuarekin ez-adostasuna irudikatzea baizik; txostenean jaso ziren ekintzak –beharrezkoak izanik ere- ez baitziren euren ustez egoerari erabateko iraulia emateko nahikoak.

Alegazio horiek guztiak hartu eta hiru ataletan sailkatzea proposatu ziguten. Agian ez zen egokiena izan: agian egokiago zatekeen arazoaren mamira joatea. Ez zen horrela baloratu eta eskatutako sailkapena egin genuen. Atalak honakoak izan ziren:

- (a) Alegazio zehatzak, neurri berriak planteatzen zituztenak edota dokumentuan jasotako ekintzetan aldaketa esanguratsuak eskatzen zituztenak.
- (b) Dokumentuan zegoeneko jasota zeuden ekintzak proposatzen zituztenak (hitzez hitz ez bada ere), edo aurreragoko zehaztapenak izan zitezkeenak.
- (c) Arrazoi teknikoengatik bideragarriak ez zirenak edo eztabaidan leku errazik ez zutenak. Batzuk orokorrak ziren, ekintzetan zehazterik ez zeudenak; eta beste batzuek udalaren eragin-esparrua edo eskumena gainditzen zuten

Ikuspegi teknikotik ere, iruditzen zait ez ginela oso txukun ibili. Astebetean 200 alegazio inguru irakurtzea, sailkatzea eta banan-banan erantzutea ez zen erreza izan. Proposamen asko abstraktu samarrak ziren eta berdin-berdin sar zitezkeen atal batean ala bestean. Sentsazioa

---

<sup>3</sup> Akordio Soziopolitiko hainbat alderdi politikok eta sindikatuk sinatu zuten. Bi neurri-sorta proposatzen zuten: (a) normalizazio prozesua azkartzeko neurriak eta (b) euskalgintza babesteko neurriak.

izan genuen alferrikako lana egiten ari ginela. Ez zen batere lan motibagarria. Orotara 16 bat alegazio utzi genuen Lehendakaritza Batzordean eztabaidatzeko moduan. Erdia onartu zuten.

Horrek nolabaiteko egonezina sortu zuen. Hala adierazi digute:

*“...dozenaka alegazio aurkeztu ondoren hamar baino ez zirela onartuko jakin genuenean, benetan pentsatu genuen Udala ziria sartzen ari zitzaigula.”*

Horren ondoren aurrekontua zehaztea izan zen hurrengo arazoa. Ekintzak urtez urteko kronograma batean kokatu eta bakoitza kuantifikatu. Aurrekontua hiru bat aldiz egokitu behar izan genuen oniritzia lortu aurretik. Programa asko bere koste errearen azpitik baloratuak izan ziren, aurrekontua egokitu ahal izateko. Gerora, programa abian jarri behar izan denean, ordea, ez da arazorik egon baliabide gehiago eskuratzeko. Hala ere, une horretan bertan proiektuaren sinesgarritasuna kolokan ikusi zuten batzuek:

*“...lana oso serio eta benetan helburuak lortzeko egiten ari ginela ematen bazuen ere egon behar zen aurrekontua ikusterakoan egiten ari ginen proposamen pila bat airean edo modu egokian garatu gabe geldituko zela ikusi genuen. Egia da urtez urte eta pixkanaka pixkanaka hoberantz egin duen gaia dela baina oraindik ere askotan galdetzen diozu buruari ea zertarako denbora eman horrelako eztabaidatan ondoren benetan eragingarria den ezer gutxi egi bihurtzen denean.”*

Euskara Zerbitzutik blokeoak gainditzeko eta prozesua aurrera ateratzeko ahaleginak egin genituen eta lortu ere lortu genuela uste dut.

*“...(adibide gisa lehen aipatutako aurrekontuen garaian gertatu zena) euskara zerbitzutik azken helburua eta azken finean behin betiko plana martxan jartzea beste gauza guztien gainetik jarri behar zela ikustarazi zen. Bazirudien euskalgintzako hainbat iritziren arabera guztia bertan behera uzteko unea zela baina, nire ustez, euskara zerbitzuak ondo jokatu zuen garrantzitsuena eta lehentasuna plana abian jartzea zela defendatuz, beti baitzegoen ondoren gauzak hobeto bideratzeko astia. Aurreko puntuan esan bezala, euskararen normalizazioan gutxi bada ere egin egin behar da.”*

Azken dokumentua Udalbatzan aurkeztu zen, oniritzia jasotzeko. Aho batez onartu zen.

Udalbatzan aurkeztea bera ere problematikoa izan zen. Euskara Zerbitzuan eta Lehendakaritza Sailean interesa genuen plana udalbatzan aurkezteko, horrek indar eta legitimitate gehiago emango ziolakoan, gaia, ordea, Tokiko Gobernu Batzarrari zegokion eta ez Udalbatzari. Tarteko bide bat bilatu zen: onartu Gobernu Batzarrak onartu zuen eta Udalbatzak berretsi.

Plana onartutakoan euskalgintzako hainbat taldek prentsaurreko bat eman zuten oso kritika zorrotzak eginez. Hurrengo eguneko titularrak honakoak izan ziren:

*BERRIA:*

*Gasteizko euskara planak ez du asebetete euskalgintza*

*DEIA:*

*Grupos euskaltzales se quejan de que el presupuesto municipal para la lengua vasca "se queda cojo"*

*GARA:*

*Euskara biziberritzeko planak hizkuntz eskubideak ez dituela bermatzen diote*

*EL CORREO:*

*Colectivos euskaltzales expresan dudas sobre el plan del uso del euskera*

Talde hauek oso kritika zorrotzak egin zizkieten, aurkeztutako dokumentuari ez ezik prozesu osoari ere.

- Kritikatu zuten udalak praktikan ez diela eman parte hartzeko aukerarik.
- Euskararen Sektore Kontseiluaren bilerak hotzak eta formalak izan zirela baloratu zuten.
- Akats larritzat hartu zuten emendakinak adosteko aukerarik ez izatea.
- Aurrekontu iluna zela baloratu zuten.

Edonola ere adierazi zuten "zorrotz" jokatu zutela aurrerantzean "onartzen denaren jarraipen estua" egiteko.

Iritzi (edo pertzepzio) horiek errespetatu bai baina ezin ginen horiekin bat etorri. Eztabaidagarriak eta apurtxo bat injustuak ere iruditu zitzaizkigun. Gure aldetik handik gutxira

BAT aldizkaria eskatu zigun artikulu batean azaldu genituen gure balorazioak:

*“Ziur aski ezin izan da heldu euskalgintzako hainbat taldek nahi lukeen bezain urrun. Jakin badakigu talde horiek gehiago nahi luketela eta onartu den plana ez-nahikotzat dutela. Kritika hori aintzat hartzen badugu ere, bada gure ustez bestelako baloraziorik ere:*

*(a) proposatu diren lan-ildoak koherenteak dira lan-mahaietan egin diren diagnosiekin;*

*(b) lan-mahaietan egin ziren proposamen gehienak jaso dira dokumentuan; ez ordea euskalgintzako taldeen partetik egin diren alegazioak.*

*(c) bada aurrerapauso bat udalak hizkuntza sustatzeko orain arte eraman duen jokabidean”*

Edozein kasutan ere, badira beste balorazio batzuk bertan azaldu ez genituenak:

- Gasteizko euskalgintzan badira hainbat elkarte dinamika sozialean inplikatzeko joera handia dutenak, koordinazio handia dutenak, eta oro har euskalgintza ordezkatzeko bokazioa dutenak. Beste batzuk ordea bere eguneroko lanean murgilduago funtzionatzen dute. Lehenak oso kritikoak agertu ziren, bigarren horien guztien iritzia jasotzea falta zitzaigun.
- Balorazio horiek egiten zituzten talde horiek guztiek parte hartu zuten lan-mahaietan. Aukera izan zuten proposamenak egiteko eta lan-mahaietan zeuden gainontzeko partaideekin kontrastatzeko. Une horretan proposatu ez eta gerora egin zuten planteamendua egitea ez zitzaigun zilegia iruditu, prozesuan parte hartu zuten gainontzeko pertsonen ekarpena gutxiestea zelako.

Episodio hori alde batera utzita prozesuari buruz bestelako balorazioak ere egin genituen:

- Teorian posiblea zirudien metodologia egoki baten bidez gaia hiru/lau orduko bi bileretan lantzea. Praktikan prozesuak iraun duen 7 hilabeteko epea oso labur geratu da. Aldez aurreko lanketaren faltan, bilera bakoitzaren lehen ordua gaia berotzen ematen genuen. Lan mahaietan elkarrekin inoiz ez egondako pertsonak zeuden, euskarari buruz oso

sentsibilitate ezberdinak (nahiz eta ez kontrajarriak) zituztenak. Bakoitzak bere iritzia eman ez ezik besteak entzuteko denbora behar zen. Inpresio nagusia korrika eta presaka ibiltzea izan zen, gauzak behar bezala hausnartu gabe. Inpresio hori bigarren bileran are handiagoa izan zen.

- Gerora ere zalantza horrekin geratu gara: prozesua luzatuz gero, talde gutxik eta euskalgintzari oso lotutakoak (profesionalizatuak, alegia) besterik ez du parte hartzen, prozesu laburtuz gero bestelako elkarteak eta taldeak hurbildu daitezke baina gaietan sakontzeko zailtasunak egongo dira. Modua bilatu beharko litzateke inplikazio maila ezberdin horiek artikulatzeko.
- Sektore batzuk oso gutxi ordezkatuak geratu ziren: komertzio txikia, gurasoak, kulturetzako sortzaileak... Hutsune horiek emaitzetan ere ikusten dira.
- Ez genuen jakin euskalgintzako taldeekin estuago lan egiten. Lan pedagogikoagoa egitea falta zitzaigun: ikuspegi teknikitik hartzen genituen arrazoiak zergatik hartzen genituen ikustaraztea, alegia. Agian horrela eginez gero, kontsentsu maila altuagoak lortuko genituzkeen.

Proiektua, oro har, oso aukera polita izan zen funtzionatzeko modu berriak esperimentatzeko. Euskalgintzak ere dezente etekin hobea atera zezakeela iruditzen zait: bai bere burua beste inguru batzuetara zabaltzeko, bai elkarten arteko lankidetzaz-gero berria sortzeko eta baita bere baseen parte-hartzea bultzatzeko ere. Arrazoiak arrazoi aukera asko alferrik galdu zirela iruditzen zait.

Interesgarria iruditzen zait elkarte bateko kide batek esandakoa:

*“... kontraerasorako jarrera mesfidati hori ia prozesu osoan izan dugula uste dut, eta horrek ez digu, gehienetan, jarrera eraikitzaile bat izaten utzi”*

*“Gasteizko euskalgintza (Euskaltzaleon Elkarguneaz<sup>4</sup> haratago bizitza baitago...) ez da, berez, eragile indartsu bat, zerbaitetan eragiten ahalegintzen den guztietan, oso sakabanatuta eragiten duelako. Ez dugu asmatu euskalgintzaren inguruan talde zabal, anitz eta indartsu*

---

<sup>4</sup> Euskaltzaleon Elkargunea euskalgintzako hainbat talde biltzen duen plataforma da: ika, aek, geu

*bat biltzen, eta EBPN abian jarri izana oso aitzakia polita zen horrelako asmo bati ekiteko. Gasteizko euskalgintzak huts galanta egin du horretan.”*

### **Plana abian jartzea: garapena eta kudeaketa**

Atal honen kontakizunak nahi bezain luze jo zezakeen. Edonola ere, denboraren ardatza jarraitu beharrean, gure gaiari (partaidetzari alegia) estuen lotzen zaizkion atalak aukeratu ditugu eta atal horien barruan egindakoak garatu.

### **Proiektuak eta jarduerak abian jartzeko eta gestionatzeko modua**

Parte-hartzea informaziotik hasten den eskailera baten moduan irudikatu izan da. Honelako zerbait:

4 – Delegazioa

3 – Kotsentsua

2 – Debatea

1 – Kotsulta

0 – Informazioa

Horren arabera, delegatzea (edo ko-gestionatzea) da parte-hartzearen gradurik gorena. Izan ere, administrazio publiko batean jarduteko modu ezberdinak daude: programa propioak garatzea, beste sailekin edo departamentuekin batera lan egitea edo beste sailek egindakoa koordinatzea, diruz laguntzea, horretan ari diren elkarteekin batera, elkarlanean, egitea,...

Ekintza-planean ekintzak lan-taldeetan jaso bezala plasmatu ziren. Kasu batzuetan ekintza zehatzak ziren eta garbi ikusten zen zeini dagokion eta nola gauzatu behar zen, beste kasu batzuetan lan-ildoak besterik ez zen azaltzen.

Metodologia txostenean bertan azaltzen zen bezala, *asmoa ezin zen izan gizarte ekimeneko taldeen lana ordezkatzeko, elkarlanean aritzea baizik*. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko

---

elkartea, ehe, arabako bertsozale elkarte eta euskharan elkarte.

ekintza edo jarduera batek elkarre baten lan-esparruekin edo interesekin talka egin duen bakoitzean hitzarmenaren bidea hobetsi da:

- Hitzarmena sinatu zen GEU GASTEIZ elkartearekin euskararen agenda sortzeko.
- Hitzarmena sinatu zen EUSKHARAN elkartearekin, begiraleen formazioan aritzeko.
- Hitzarmena sinatu zen URTXINTXA elkartearekin Gasteizen GAZTE HIZKERA proiektua gauzatzeko.
- Euskara ikasleei ematen zaien diru-laguntzaz gain, euskaltegien jarduna bera ere diruz laguntzen zen. Diru-laguntza horiek hitzarmen bihurtu ziren.
- Hitzarmena sinatu zen TINKO elkartearekin EUSKARA ZINEMA ARETOETARA programa finantzatzeko.

2007eko udaz geroztik abian dugu MINTZALAGUNA egitasmoa. Agian partaidetzan inflexio-puntu txiki bat izan da. Euskara Zerbitzutik iradoki genuen interesaturik egongo ginela Gasteizen horrelako egitasmo bat garatzeko. Euskaltzaleon Elkarguneak erronka jaso eta proposamena egin zuen.

Lan banaketa honakoa izan da:

- Gasteizko Udalak Euskara Zerbitzuaren bidez proiektuaren finantziazioa bermatzen du. Edonola ere Udala finantzabide bakarra ez izateko beharra azpimarratu da. Bai Udalak bai gainontzeko sustatzaileek finantzabide osagarriak bilatzeko konpromisoa hartzen dute.
- Gasteizko Udala proiektuaren sustatzailea da, gainontzekoak bezala. Ez gehiago, ez gutxiago. Eskubide eta betebeharrak berdinekin. Beste sustatzaileek egiten duten bezala, bere azpiegiturak eta baliabideak erabiltzeko erraztasunak eskaintzen ditu.
- GEU GASTEIZ elkarteak gestio zuzenaz arduratu da. Horretarako koordinatzaile-dinamizatzaile bat kontratatu du.
- Jarraipen batzordea osatu da. Bertan ere Euskara Zerbitzuak parte hartzen du.

Era honetako elkarlana aberasgarria iruditu zaigu. Uste dugu eguneroko harreman horiek blokeoak arintzen laguntzen dutela.



Beste programa batzuetan ere partaidetza bultzatu nahi izan da ahalik eta gehien:

- Udalak hiriko euskaltegiak kontratatzen ditu gizarte etxeetan guraso-taldeei euskarazko eskolak emateko. Lantaldea osatu zen euskaltegi ezberdinen artean programa bera modu kolaboratiboan berdefinitzeko.
- Hitzarmena sinatu da merkataritza eta ostalaritza alorreko hiru eragile nagusiekin: merkataritza ganbararekin, ostalarien elkartearekin eta merkataritza eta zerbitzu arloko federazioarekin. Arlo hauetan egiten diren ekintzak eurekin adostuak egin nahi izan dira eta haiei protagonismoa eman.

Azken puntu honen inguruan, halere, ezadostasunak eta ikuspuntu ezberdinak ikusten ditugu. Batetik ondo baloratzen da *“sektoreko erreferenteei protagonismoa ematea, batez ere urrunagoak direnei”* baina bestetik batzuek uste dute arlo horretan udalak lidergoa hartu behar lukeela, eta ez besteen eskuetan delegatu.

Proiektuaren gestioaren barruan, partaidetzaz gain, trasbertsalitatea ere interesatzen zaigu. Plana onartu eta gutxira sail-arteko batzorde bat martxan jarri genuen, batez ere, arlo ezberdinetan Udalak egiten zituen programazioetan hizkuntza-irizpideak adosteko. Batzordeak urtean bitan bildu da: bilera batean sail bakoitzak programazioari begira zituen asmoak azaltzen zituen eta gainontzekoen programazioen gainean ekarpenak egiten zituen, eta bigarreanean balorazioak egiten ziren eta hobetzeko puntuak aztertu. Ondo baloratzen dugu batzorde horren existentzia baina oso motz geratu zaigu ziur aski.

### Komunikazioa

Komunikazioa gai problematikoa izan da. Kezkak bi mailatan sortu dira: (a) batetik sektore kontseiluko kideekin zein planaren une batean edo bestean parte hartu duten elkarteekin izan dugun komunikazioak hutsuneak izan dituela baloratu dute elkarteek, zenbaitetan ez dutela behar beste informaziorik jaso; (b) bestetik, plana bera eta egiten ari ziren lanak sozializatzeko interes gutxi leporatu zaio Udalari

Lehenari dagokionez honako iritzi hauek jaso ditugu:

*“Euskararen Sektore Kontseiluaren bilera batetik besterako tarteetan informazio asko galtzen zen norabide bakarrean: administratibotik elkarreterara. Hau da, elkarteek (nork bere*

*aldetik, egia da...) informazioa edo proposamenak helarazten zizkion administrazioari, baina gainontzeko elkarteek ez zuten horren berri izaten hurrengo bilerara arte, ezta proposamen horiek onartzeko edo ez onartzeko arrazoiak zein ziren ere. Badakit hori ez dela, berez, Euskara Zerbitzuaren lana (hurrengo galderan egingo dut horren inguruko autokritika bat...), baina hor baziren baliabide nahikoak koordinazio hori egiteko.”*

*“Zaila egiten zait indargune eta ahuleziak aipatzea lehenengo urtean bakarrik hartu nuelako parte “Gasteizko euskara biziberritzeko plana” egin zenean. Harrez geroztik, hartueman gutxi izan ditut Euskararen kontseiluarekin eta hori da, hain zuzen ere, ikusten dudana ahulezia bat: ez al genituzke gure indarrak batu behar izango Gasteizko euskararen Normalkuntzan? /.../ Euskararen Sektore Kontseilutik Euskararen Agenda besterik ez da ailegatzen. Hori besterik ez diegu zabaltzen guraso eta ikasleei Gasteizen euskaraz bizitzeko. Hau al da nahikoa?”*

2006az geroztik EBPnri lotuta albiste azpimarragarriak egon den bakoitzean, e-postaz horren berri eman diegu bati batzuei eta bai besteei, baina inolako maiztasunik gabe eta inolako sistematizaziorik gabe.

Bigarrenari dagokionez, esan behar da komunikazioa, publizitatea,... oso garestia dela eta aurrekontuak dezente txikiak. Dena den, sektore Kontseiluko kide bati behin entzun nion bezala, askotan aurrekontua ere ez da inportanteena, Udalaren baliabide propioei oso etekin handia atera ahal zaie. Borondatea, lan egiteko gogoia eta imajinazioa besterik ez da behar.

Sektore Kontseiluko hainbat kidek gogor kritikatu dute:

*“Ildo horretan, komunikazio-kanpaina osoan izan dugu Udalak beharrezkoak ziren baliabideak erabili nahi ez zituelako sentsazioa. Zuzen ala oker, beti pentsatu dugu beste gai askotan baliabide gehiago eta eraginkorragoak erabili direla, eta, gai horretan tematu arren, uste dute Udalak entzungor egin zuela”*

Edozein kasutan ere, komunikazioa eta publizitatea gehiegi lotu ditugu. Uste dut komeni zaigula komunikazio soziala zer den eta nola ulertzen dugun argitzea.

Komunikazio-lana gehien bat honako ekintza hauetan gauzatu da:

- EBPN martxan jarri zela jakinarazteko prentsaurrekoa egin zen. Bertan Eusko Jaurlaritza eta Gasteizko udala agertu ziren.
- Sentsibilizazio eta komunikazio kanpaina egin zen EBPN abian jartzearekin batera. Hor proposamen interesgarriak izan genituen mahai gainean. Enpresa batek Gasteizko EBPNari marka izaera emateko eta marka bezala kudeatzeko proposamena egin zigun. Garai horretan gehiegi tematu ginen berehalako inpaktua lortzearekin: hori horrela proposamenak baloratzeko inpaktua baloratu genuen gehien bat: bai medioetan (prentsa,..) eta bai kalean (kartelak, iragarkiak,...). Marka eraikitzeke proposamen horretan alde kualitatiboak hartzen zuen garrantzia: garrantzia gehiago ematen zien edukiei tresnei baino.
- Urtez urte sentsibilizazio kanpainak egin ditugu. Kanpaina hauek helburu bikoitza izan dute: (a) euskararen aldeko mezu orokor bat zabaldu eta (b) herritarrak euskararen aldeko apustu zehatzak egitera animatu: euskara ikasteko edo hobetzeko euskaltegietan izena ematera edo euskarazko ikastaro eta jardueretan izena emateko. Aurkeztutako proposamenen artean bat aukeratzeko batzordean Euskararen Sektore Kontseiluaren ordezkariak egon da azken deialdietan.
- Web orria Gasteizko euskararen ataria moduan funtzionatzea nahi genuen hasiera batean, euskarari buruzko edozein informazioa era erraz eta erosoan eskuratzeko moduko zerbait. Emaizta ez da horrelakoa izan. Batetik, horrelako proiektu batek Euskara Zerbitzuetatik eskaini ahal dioguna baino askoz dedikazio handiagoa behar duela iruditzen zait; bestetik, erreferente garbi bat eraiki nahi badugu, ezinbestekoa iruditzen zait lidergo konpartituaren bidez sortzea. Arazo teknikoak ere egon izan dira.
- Udalak duen komunikabide inportanteena Udal Kazeta hilabetekaria da. 2006 urteaz geroztik, Euskara Zerbitzuak orri baten ardura hartu du bere gain euskarari lotuta gaurkotasuneko gaiak proposatzeko. Bertan, arian-arian Euskara Zerbitzuak garatzen dituen proiektuen berri emateaz gain, hirian euskararen inguruan dauden ekimen askotxoren berri eman da.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz, Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak

EBPNrako komunikazio-gida argitaratu zuen 2006an. Gidak bi ideia nagusi jorratzen zuen: (a) markaren ideia landu beharra, hau da, EBPNren inguruan egiten den guztia lotuta dagoela ikustarazteko beharra eta (b) ekintzak, programak edo jarduerak programatzen direnean zeinek bere aurrekontua duen bezala, bakoitzak bere “komunikazio-plana” ere izan behar duela. Hau da, edozein ekintza programatzen denean, komunikatu beharrak jarri behar dira mahai gainean: nori eta nola, alegia. Bide horretatik hainbat pausu ematen saiatu gara, baina oso modu epelean, egia esanda.

### Osagarritasuna: administrazioaren eta gizarte erakundeak.

Administrazioaren eta gizarte erakundeen arteko osagarritasuna kezkatzen gaituen gaia da. Hasieratik izan dugu gogoan eta, ahal izan denean, kontuan hartu dugu.

Eskakizunen artean, ordea, Gasteizko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eta Bai Euskarari Akordioaren Plan estrategikoaren arteko osagarritasuna bermatzea egon da hasiera-hasieratik eta horrek ez du konponbide erreza izan.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin harreman bereziak izan ditugu. Txosten metodologikoan bertan honela esaten zen:

*“Vitoria-Gasteizko Udalak beharrezko ikusten dituen hitzarmenak sinatuko ditu planaren garapena bermatze aldera. Hori horrela, aurreikusia du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin hitzarmena sinatzea, horrek planaren diseinuan parte hartzeko eta kanpo-ebaluazioa egiteko. Aurrekoetz gain, Udalak Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekiko elkarlanean sakontzeko borondatea adierazi du, eta Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiriaren inguruan proposa dezakeen egitasmoa babestea hitzartuko du, alde biek egoki ikusten duten moduan.”*

Kontseiluak hasieratik argi utzi ditu bere asmoak eta lehentasunak: Gasteizko merkataritza arloan Bai Euskarari Ziurtagiria zabaltzea, ez besterik. Euskara Zerbitzuak, ordea, hitzarmena sinatzeko orduan, testuan xehetasun gehiegi ez jartzea hobetsi zuen, gerora betetzerik izango ez zuen konpromisorik ez hartzeko.

Izan ere, merkataritza gai konplexua iruditu zaigu hasieratik:

- Gerora konprobatu ahal izan dugun bezala, merkataritza arloan euskararekin oso jarrera apalak daude.
- Sektoreak amaigabeko krisialdi batean bizi da. Sektoreko lan baldintzak gehienetan ez dira egokiak: ordutegia, soldatak,...
- Euskara merkataritzan balio erantsia dela aldarrikatzen duen mezua ez da merkatoriengana ailegatzen. Merkatarien buruan euskarak balio afektiboa izan dezake baina ez balio komertzialak: bezeroek ez dute eskatzen eta beraz ez dago zertan eskaini.
- Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektua ez da oso ezaguna edo mesfidantza sortzen du.

Hori horrela, plangintzaldiaren hirugarren urtera arte merkataritza arloan ez zen ekintzarik aurreikusten. Hirugarren urtetik aurrera ere modu progresibo batean lantzea proposatzen zen. Honela:

- Enpresari, merkatarari eta ostalari elkarte nagusiekin hitzarmenak egin, euskararen normalizazioan sektorea inplikatzeko.
- Euskarazko zerbitzuak eskaini: itzulpenak, zuzenketa, terminologia, zalantzak, aholkuak.
- Komunikazioa, sentsibilizazioa, marketinga landu.
- Plan integral baterako pausuak eman.

Planteamendu horietan ez zen baztertu *Bai Euskarari Ziurtagiria* uztartzea, baina ez zen konpromiso berezirik hartu.

Euskaltzaleon Elkarguneak hasieran (ikus 2. oin-oharra) eta Kontseiluak gero horri ekiteko eskatu zioten Udalari. Lehengo aldian horretarako unea ez zela adierazi zitzaizen eta bigarreanean horretarako aukerarik ez zela ikusten.

Horrek nolabaiteko ondoeza sortu zuen:

*“...uste dut sentitu genuela euskalgintzak merkataritza arloan Bai Euskarari Ziurtagiria bultzatzeko egindako proposamenari ez zitzaiola (kasu honetan euskara zerbitzutik) behar bezalako edo behintzat guk nahi adinako garrantzirik eman.”*

*“/.../ Bai Euskarari Ziurtagiria dela-eta euskalgintzak egin zuen aurreneko proposamenean esaterako, alde teknikoa izan zen (betiere nire uste apalean) alde politikoan akordio batera ez heltzeko arrazoietako bat (ez, agian, garrantzitsuena, baina bai arrazoietako bat).”*

Edozein kasutan ere, Bai Euskarari Ziurtagiria abian jartzeko aukera oraingoz baztertuta dago, beraz.

### *Euskararen Sektore Kontseilua.*

Sektore kontseiluan Udaleko talde politiko guztien ordezkariak daude ordezkatuak, talde teknikoak parte hartzen du (udaleko teknikariek ez ezik, Foru Aldundiko teknikari batek eta Berritzeguneko teknikariek ere parte hartzen dute) eta horrela eskatu duten euskalgintzako talde guztietako ordezkariak. Lan-mahaietan parte hartu zuten eragile guzti-guztiek sektore kontseiluan ere parte hartzeko gonbita jaso zuten: bi tramite besterik ez zen eskatzen, (a) elkarteen udal erregistroan izena ematea; (b) idazki bat egitea parte-hartzea eskatzeko eta ordezkariak izendatzeko.

Oro har badirudi oraindik ez dugu guztiz asmatu ez funtzionamenduan ez eta gai-ordenak finkatzeko orduan ere:

*“ /.../ Sektore Kontseiluan askotan gureak ez diren gaien inguruan aritzen garela ematen du, askotan burokrazia eta administrazio kontuak nagusitzen dira eduki interesgarrien gaineratik”*

Edonola ere, hainbat aldaketa nabaritu dugu.

Lehenengo fasean ez genuen lortu Euskararen Sektore Kontseiluak bete behar lukeen papera betetzea. Bileren formatua zela (oso formala), aldi bereko itzulpena behar izatea zela eta mesfidantzak zirela, Sektore Kontseiluan ez zen eztabaida dinamikarik lortu. Galdera-erantzuna dinamika izan zen nagusi.



Azken bileretan, esan bezala, aldaketa batzuk antzeman dira: formatua, jarrerak,... Goiz da zerbait esateko baina baliteke fase berri baten atarian egotea. Edonola ere, uste dut 2006ko uztailean funtzionamenduari buruz egin genuen baloraziotik oraindik ere askotxo dugula

ikasteko eta hobetzeko.

Izan ere, galdetegi batean oinarrituta, Sektore Kontseiluko kideek ordura arteko dinamikaren balorazioa egin zuten, besteak beste, lau arloren arabera:

- Kontseiluaren egitura eta osaera
  - Partaidetza eta inplikazioa
  - Erabakitzeko ahalmena
  - Bileren dinamika

Bakoitzaren barruan alde sendoak eta ahulak identifikatu ziren:

		
<i>Kontseiluaren egitura eta osaera</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Sektore Kontseiluan talde askotxok hartzen du parte, konpromiso handikoak, eskarmentu handiko jendea.</li> <li>— Ondo baloratu da Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak parte hartzea eta aholkularia izatea.</li> <li>— Administrazioa, euskalgintza eta alderdi politikoak foro berean biltzea ona da eta potentzialitate handia du. Alderdiak bertan egotea ondo baloratu da, haiekin harreman zuzena izateko aukerak zabaltzen dituelako.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Bilera batetik bestera etena dago. Ez dago lan jarraitua egitearen sentsazioa.</li> <li>— Formatuagatik zaila da lantalde baten dinamika hartzea.</li> <li>— Sektore batzuk oso gutxi ordezkatuak daude (edo batere).</li> </ul>
<i>Partaidetza eta inplikazioa</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Hutsuneak hutsune parte hartzeko aukera ematen ari da.</li> <li>— Komunikazio zuzena dago Udalaren eta Euskalgintzaren artean. Ez da beti horrela gertatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Inplikazio gutxi, jarrera pasiboa. Udalak garatzen dituen programak ez dira norberarenak sentitzen, urrun ikusten dira.</li> <li>— Parte hartzeko eta informatuta egoteko modu bakarra Sektore Kontseiluan parte hartzea da, bestela kanpoan gelditzen zara. (Planaren diseinuan parte hartu baina gerora udal kontseiluan integratu ez den talde bateko partaideak esanda).</li> </ul>
<i>Erabakitzeko ahalmena</i>		<ul style="list-style-type: none"> <li>— Kontseiluak erabakitzeko ahalmenik ez izatea.</li> <li>— Erabakiak kontseiluaren bizkar hartzen</li> </ul>

		direlako ustea — Arduradun politikoen eta kontseilukideen arteko mesfidantzak.
<i>Bileren dinamika</i>	— Mahaitik nahiko ondo bideratzen dira. — Maiztasun aldetik ondo.	— Bilera formalegiak — Esku-hartze txikia bileretan. — Zalantzak benetan kideek gaia aldeztu aurretik lantzen ote duten.
<i>Bestelakoak</i>	— Planaren diseinuan lan metodologiko egokia egin zen — Gasteizen euskarak duen egoeraren diagnosia egokia eta nahiko bateratua dugu.	— Planak baliabide gehiago beharko luke. — Helduen euskalduntzeari arreta handiagoa planaren barruan.

Horrekin batera hainbat proposamen egin ziren:

Kontseiluaren egituraz:

- Euskara Sektorearen Kontseilua lantaldeetan antolatzeak aukera aztertzea: helduen euskalduntzea, hezkuntza eta familia bidezko transmisioa, aisialdia eta kirola, merkataritza. Horrek aukera emango luke batetik proiektuak eta programak aldeztu aurretik eta sakon hausnartzeko eta bestetik bestelako eragileak erakartzeko. Sektore Kontseiluan egoki baloratu bazen ere, planteamendua beste taldeetara eramaten hasi ginenean arrakasta gutxi izan genuen. Horren ordez bilera bilateralak eta bilera irekiak antolatu izan ditugu, gai jakinei buruz hitz egiteko.
- Hiriko plana eta ikastetxeetako normalkuntza planak koordinatu (Ulibarri eta Euskaraz Bizi).

Partaidetzaz eta inplikazioaz:

- Alderdi politikoei jarrera aktiboagoa eta inplikazio maila altuagoa eskatu.
- Euskalgintzako taldeek bere barruan egin beharreko kontrasteak egiteko eta erabakiak hartzeko prozedurak azkartu beharko lituzkete.
- Komunikazioa hobetu: talde batek egiten dituen proposamenak talde guztietara bidali.
- Partaidetza ez da berez sortzen, landu behar da. Udalaren ardura da.



Bileren dinamikaz:

- Bileren formatu fisikoa aldatu: beste lokal batean, mahai baten inguruan,...
- Dinamikak antza handiagoa izan beharko luke planaren diseinuan egin ziren lantaldeekin, egungo bilerekin baino. Komunikazio giroa sortu. Ekipo-jardunean aditua den norbait ekartzea, taldearen lan egiteko era hobetzeko.
- Puntuz puntu hobekuntzak egon dira, baina aurrera begira ere kontuan hartu behar direla iruditzen zaigu.

Arazoa, hala ere, are sakonagoa dela esango nuke, Euskara Sektorea urrun baitago Euskara Biziberritzeko Planaren lidergoa eramatetik, eta azken batean hori zen hasiera bateko asmoa:

*“(arazo larriena) beharbada planaren segimendua egiteko diseinu-prozesuan hasitako parte-hartze dinamikarekin ez segitzea (da). Sektore Kontseiluaren bitartez egitea zen helburua, baina Kontseilu ez da hori izan, ordezkari egokienak eta eragile asko falta zirelako (oker ez banago). Zalantzarik gabe, egoera hori ez da euskara-zerbitzuaren akatsa edo hanka-sartzea, egoera politikoaren ondorioa baizik.”*

Akatsak akats, ahalegin handia egin dugu jendea inplikatzeko eta egitura hau bizirik mantentzen. Ahalegin hori ikusi eta aintzatetsi egin dela iruditzen zait:

*“EBPN gauzatzen joan den heinean, Euskara Zerbitzua fin ibili dela euskalgintzari eragile aktibo garrantzitsu bat dela erakusten: lan-mahaietan parte hartzeko, alegazioak aurkezteko, euskaltegietan izena emateko kanpainan, aisialdian euskararen erabilera sustatzeko proiektuak aurkezteko... Mezu garbia bidali zigun Euskara Zerbitzuak: “Aizue! Zuek zarete euskalgintzako ordezkariak, eta hau da zuen esparrua. Zuen lana garrantzitsua da. Aprobetxa ezazue.”*

Euskararen Sektore Kontseiluaren baitan bizi-bizirik dago sektorearen beraren zereginari eta funtzionamenduari buruzko kezka. Azken eztabaidetan, ordea, ados egon gara malgutasun nahikoa behar dugula bai zereginak eta bai funtzionatzeko erak garai eta une bakoitzeko erronken arabera egokitzeke; are gehiago orain irekitzen den fasean, non planaren ebaluazioa

egin behar dugun, diagnostikoa berregin eta hurrengo plangintzaldia prestatu.

Edonola ere, bada beste kritika bat kontuan hartu behar duguna; batzuen ustez, Euskara Zerbitzuak hari ez dagokion protagonismo hartu izan baitu zenbaitetan:

*“Nire ustez, Euskara Zerbitzuak (...) protagonismo handiegia hartu behar izan du prozesuaren hasiera-hasieratik, eta, zenbaitetan, azalpen teknikoez haratago, azalpen politikoetan sartzen ibili behar izan du behin baino gehiagotan: metodologiaren hasierako eztabaidetan, eta alegazioak onartzeko edo ez onartzeko orduan, batez ere.”*

*“(akatsa izan da) EBPN euskara zerbitzuari gehiegi lotzea, baina zaila da desmarke hori egitea.”*

Hori horrela, onerako zein txarrerako, gizarte eragile batzuek haien eta agintari politikoen arteko filtro moduan ikusi gaituzte.

### Ebaluazioa

Ebaluazioa bera gai gatazkatsua izan daiteke. Prozesu sozialak ez dira linealak: **Y** lortu nahi badut **X** egin behar dut. Kausa-ondorio loturak oso lausoak izaten dira.

Beste nonbait esan dugun bezala, Udalak hitzarmena sinatu zuen Euskararen Gizarte Erakundeekin Kontseiluarekin elkarlanerako eta honek Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren kanpo ebaluazioa bere gain hartzeko. Kontseiluak kanpo auditorietan oinarritutako planteamendu bat ekarri zigun, enpresa munduko kalitate-ereduetan oinarritutakoa: planaren baitan sortutako dokumentazioan oinarrituta, planaren betetze-maila eta egokitasuna aztertzea, alegia.

Ereduak zalantza asko sortu zigun, batez ere, gehiegi oinarritzen zirelako. gestio-elementuetan Hala ere, aurrera egitea erabaki zen.

2006ko apirilean lehen auditoritza-txostena aurkeztu ziguten. Txosten horretan ekintzen gauzatze-maila altua azpimarratu zen. Egin ditugun elkarrizketetan ere antzeko iritzia azaldu da, alegia, ekintzen gauzatze-maila dela gure indargunetako bat:

*“... gainera, proposatutakoa betetzen ari dela ikusteak prozesuan sinestea ekartzen du eta uste dugu diseinuan jasotakoa oso modu egokian garatzen ari dela.”*

*“Diseinuan planteatutako ardatz nagusiak betetzen ari direla ikusi dut eta sektore estrategikoetako eragile nagusiak inplikatu dituztela, eta hori oso lorpen garrantzitsua da euskara sustatzeko proiektu batean”*

Beste hainbat kontu ere baloratu ziren. Besteak beste, bi:

- Udalak kanpo auditoretza bat jasotzeko izan duen prestutasuna. Egitasmoaren jardun publikoan, gizarte eragileen partehartzean eta egindakoaren hobekuntzan sakontzeko borondatearen erakuslea.
- Zeharkakotasunari lotutako hainbat jarduna: departamenduen arteko batzorde bat abian jarri izana, Udalean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak eta jarraibideak ematen dituen eskuliburua argitaratu izana; diru-laguntzetan euskararen irizpidea barneratu izana,...

Hobekuntzei begira proposamenak hiru mailatan sailkatu genituen:

1. Udalaren **Hizkuntza Politikaren definizioa** eta ezaugarriak dokumentu bakar batean jaso.
2. Planaren **akats estrukturalak** (alegia, planaren egiturarekin zerikusia zutenak) zuzentzeko pausuak eman. Batetik egitasmoaren arkitektura zegoen (elementu eta plano ezberdinen arteko loturak eta harremanak adierazi beharra: politikak helburu estrategikoekin, helburu estrategikoak ekintzetako helburuekin, helburuak ekintzen jarduerekin, jarduerak datuekin, datuak adierazleekin, adierazleak balorazioekin, balorazioak berrikuspenarekin, berrikuspenak politikekin... eta plano bakoitzean elkarrekin) eta bestetik kudeaketa-sistema antolatzea (adierazle-sistema, dokumentazio-sistema, prozedurak, egitasmoaren eskuliburua,...).
3. Planaren dimentsio sozialarekin zerikusia zutenak: (a) **gizarte ekimenarekiko osagarritasuna** (egitasmoaren garapenari buruz inplikaturakoen iritziak eta pertzepzioak jasotzeko sistema prestatzea, gizarte eragileekin kontrasteak egiteko bideak jorratzea; Udal Kontseiluaren funtzionamendua hobetzea); (b) **gizarte sareak sortzea** eta (c) Iritzi publikoarengan eragiteko **komunikazio sozialean**

## **sakontzea.**

Oraingo perspektibarekin 3 (b) puntu honen barruan esandakoa bereziki interesgarria iruditzen zait:

*Teknikari batzuk, beraiek bakarrik, ezin dute errealitate sozial konplexu bat irauli. Gizarte sareetan kokatuta dauden eta eragile diren pertsonen eta entitateen inplikazio positiboa eta lidergo laguntza behar da.*

Garai horretan, ordea, gehiegitxo tematu ginen bigarren puntuan. Beharrezkoa ikusi genuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren dokumentu "ofizialari" buelta batzuk ematea eta bertako helburuak, lan-ildoak eta ekintzak berridaztea, planaren "arkitektura" argitzeari begira.

Edozein kasutan ere, ez ginen oso konforme geratu ebaluazio-eredu horrekin. Ez zitzaigun baliagarria iruditu, planaren diseinuan garrantzirik izan ez zuten kontuetan gehiegi zentratzen zelako eta kasu gutxi egiten zirelako planean zentralak ziren kontuei.

Erabilgarriak eta argigarriak izan ziren batetik berdintasunerako plana ebaluatzeko egitasmoa eta bestetik *Llengua i ús* aldizkarian egitasmoen ebaluazioari buruz argitaratutako artikulu sorta.

Berdintasunerako plana ebaluatzeko egitasmoan bi helburu zehazten ziren, batetik herritarrei eta batez ere inplikatuari egindakoaren berri eta kontu ematea (auditoriarekin lotuta beraz) eta bestetik honakoa:

*"Plana gauzatzen eta jarraipena egiten parte izan diren erakundeen esperientzia metatua sistematizatzea, aurrera begirako ekintzak diseinatze aldera"*

Zer esanik, bigarren helburu hori bereziki interesgarria iruditu zitzaigula.

*Llengua i ús* aldizkarian, helburu orokorrak, helburu espezifikoak eta helburu operatiboak dauden bezala, adierazleak ere era ezberdinetako adierazleak egon behar direla aipatzen dute: inpaktuak (inpactes), emaitzak (resultats) eta gauzapenak (realitzacions). Horrela definitzen zituzten:

- *Inpactes: efectes a llarg termini sobre població receptora o general*
- *Resultats: efectes directes i immediats sobre població receptora*

— *Realitzacions: béns i serveis produïts pel programa*

Adierazle mota horiek “*Dóna corda al català*” kanpainaren ebaluaziora ekarrita, honelako adibideak ematen zituen:

— *Impactes: canvis en els usos lingüístics interpersonals*

— *Resultats: Audiència total de la campanya (per exemple)*

— *Realitzacions: Difusió de materials (spots, anuncis, falques,...) (per exemple)*

Artikuluaren arabera gauzapenen eta emaitzen inguruko adierazleak eta datuak biltzeak badu bere zailtasuna baina posiblea bada. Arazoak inpaktuaren inguruan sortzen dira. Honela azaltzen zuten:

*Cal dir però que els indicadors d'impactes són de gran complexitat i difícil d'establirhi relacions causals, és a dir, difícilment podem afirmar amb seguretat que els efectes produïts al llarg del temps són gràcies a les accions que es varen dur a terme.*

*/.../*

*Aquestes tres nivells d'indicadors tenen una dificultat de recollida i de mesura molt diferents. D'aquí que ens proposem recollir dades d'indicadors de realitzacions i de resultats a curt termini i fer diverses aproximacions qualitatives al nivell d'impacts a llarg termini. Per exemple, amb les dades actuals, difícilment podrem arribar a saber el nombre de persones que han canviat les normes d'ús de la llengua a nivell quantitatiu. Tot i això a través del estudi dels grups de discussió podem conèixer actituds i opinions sobre la incidència de la campanya en els canvis d'usos lingüístics.*


*Llengua i ús 35 (2006)*

Horiek horrela, Kontseiluarekin bestelako ebaluazio-eredua adostu zen: kualitatiboa eta parte-hartzailea. Ebaluazio horrek bi helburu zituen: batetik, “ezagutza metatua” azalaraztea eta bestetik ekintzen intzidentzia ebaluatzea.

Bigarren ebaluazio hori plangintzaldiaren lehen erdia amaitzearekin batera egin zen, lan-mahaien bidez. Horretarako planaren eskema garatu eta arloz arlo deskargu-dokumentuak

aurkeztu ziren: ekintzak, jarduerak eta horien adierazleak. Hasierako lan-mahaietan parte hartu zuten guztiak gonbidatuak izan ziren eta baita planarekin harreman bat edo beste izandako pertsonak edo elkarteak ere. Ebaluazioak lehen helburua ondo bete zuen eta emaitza interesgarria eman zuen. Bigarren helburua (ekintzen intzidentzia neurtzea, alegia) bete gabe geratu zen.

Bileretan, lan-ildo bakoitza baloratzeaz gain, prozesuaren balorazio txiki bat ere eskatu zen. Balorazio horrek datu berri handirik ematen ez bazuen ere, oso argazki interesagarria ematen zuen. Argazki horren arabera, plana abian jarri genuenean espektatiba ezberdinak sortu ziren: batzuek uste zuten planak inflexio-puntu bat ekarriko zuela, beste batzuek plana mesfidantzaz ikusten zuten,... Argazkia, gutxi gorabehera honela azaltzen zuen ebaluazioak:



Esan bezala, lan-ildo eta ekintza guztien balorazioak jaso ziren, baita hobekuntza-proposamenak ere. Ez du merezi proposamen konkretu guztiak hona ekartzea baina bai proposamen globalak. Proposamenen artean lau gai agertzen dira berriro ere modu errekkurrentean:

— **Bai Euskarari Ziurtagiriarekiko osagarritasuna bilatzea:** hiriko hizkuntza paisaian eragin beharko litzateke eta honetan indarrak jarri. Komertzioetan euskaraz atenditua izan ahal

izateko bitartekoak jartzea.

- **Sektore Kontseiluaren papera eta protagonismoa.** Sektore Kontseilua bi norabideko organoa izan behar dela ikusten da. Bere funtzioak gauzatzearen beharra ikusten da, informazio deskargu hutsera mugatu ez dadin. Sektore Kontseiluko partaideek egindako proposamenak udalbatza osatzen duten politikoengana iritsi beharko liratekeela ikusten da.
- EBPN-n **Udalaren inplikazioa handitzea.**
- Oro har, EBPNren bidez egiten denaren **komunikazioan, hedapenean eta zabalpenean aurrerapausoak** eman. EBPN gizarteratzeko plan bat beharrezko ikusten da.

Gure ustez lau gai horiek ez dira orain eta betiko erabaki beharreko gaiak, sakontzeko kontuak baizik. Aurrerantzean landu beharreko lan-ildoak dira, eta batez ere, hurrengo plangintzaldiari begira ditugun erronkak.

## 6. HAINBAT ONDORIO

Lan honen helburua ibilbide honetan zer ikasi dugun sistematizatzea eta ordenatzea izan da. Baten batek esan zuen esplorazio baten helmuga berriro ere abiaburura iristea dela eta abiaburua bera ere beste modu batean ikustea. Udalerrietan euskara biziberritzeko planetan parte-hartzea izan da gure hasierako kezka eta kezka horretara heldu gara amaieran ere. Bidea laburtu beharko bagenu, beste baten hitzak erabiliko genituzke: ez gaude nahi genuen lekuan, baina geunden lekutik urrun gaude.

Atalez atal, aurrera begira eztabaidatu eta argitu beharreko hainbat puntu bildu dugu:

### *Plan amaitu berriaren ebaluazioa eta prestaketa-lanak*

- (A) Planak elkarren segidan datozenean, interesgarria da etenik ez izatea: plana amaitu, gelditu, ebaluatu, hurrengo plana diseinatu eta berriro martxan jarri... indar asko galtzen dela iruditzen zait. Plana amaitu berriaren ebaluazioa birdiagnostikoarekin lotu beharko genuke eta jarraian lau urteko plana finkatzeari ekin. Pausu batetik bestera ilusioa piztea da gakoetako bat. Kritikari bidea eman, kritikak onartu baina beti ere aurrera begirako ilusioa pizteko moduan.
- (B) Ebaluazioan plangintzaldian zehar parte hartu duten taldeek eta pertsonak hartu behar dute parte. Hurrengo planari begira interesgarria da ikuspegi zabaltzea. Aukera egokia da tartetxo bat hartzeko, nortzuek parte hartu duten ikusi, nortzuk faltatu diren hausnartu eta aurrerantzean nortzuk egon behar diren identifikatu.

### *Diagnostikoari buruz*

- (C) Ez da egokia zerotik abiatzea: metatu dugun ezagutza eta esperientzia da abiapuntua. Diagnostiko berria egiteko (birdiagnostikoa, esango genuke, egokiago) orain dela lau urteko diagnostikoa da abiapuntua. Galdera gakoak, beraz, honakoak dira: zer gehiago dakigu orain lehen ez genekiena? zer aldatu da? zer aldatzen ari da?



- (D) Partaide ezberdinak aurreikusi behar ditugu: Euskara Zerbitzuko teknikaria; beste departamentuetakoak; euskalgintzako partaideak edo euskararen munduarekin lotura estu samarra dutenak; arloan arloko eragileak; euskararen munduko bizipen ezberdinak izango dituztenak; eta baita politikoak ere. Hori guztia artikulatzen ikasi behar dugu: batzuetan denok batera eztabaidatu ahal izango dute, baina beste batzuetan aldeztatik taldeka landu beharko dituzte gaiak eta azken bilera bat denok batera.
- (E) Aurreko plangintza egiteko orduan kanpoko aholkularitza-entresa baten parte-hartzea erabakigarria izan zen. Hurrengoan ere ezinbestekoa iruditzen zait. Eztabaidatu behar da ordea zein den bakoitzaren papera: enpresak zer egin behar duen eta Euskara Zerbitzuak zer. Prozesua landuko duen bitariko talde tekniko bat osatu daiteke edo talde hori are gehiago zabaldu eta partaide gehiago bertan bildu. Edozein kasutan ere, bai diagnostikotxostenean ez bai planaren dokumentuan uste dut Euskara Zerbitzuak esku-hartze zuzena izan behar duela.
- (F) Lehen esan bezala, bai diagnostikoan eta bai programazioan bideak bilatu beharko genituzke erakundeak ez ezik norbanakoek ere parte-hartzeko. Edozein herritarri parte-hartzeko aukera zabaltzeko bideak sortu beharko dira baina baita taldeetako eta elkarteetako partaideen parte-hartzea sustatzeko moduak ere.

### Programazioari buruz

- (G) Planaren (dokumentuaren) hezurdura eta barne-koherentzia dezente hobetu behar dela uste dut eta hasiera-hasieratik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren irizpidearekin eta formatuarekin bat etortzea: helburuak, adierazleak, estrategiak, ekintzak,...
- (H) Lau urteko plan estrategikoak ez du zertan xehetasun guztiak bildu. Programa edo ekintza bakoitzaren definizio zehatza urtez urteko despliegian egin daiteke. Bai komeni zaigu urtez urte abian zeintzuk programa jarriko diren erabakitzea eta bakoitzaren aurrekontuari buruzko aurreikuspena egitea ere.
- (I) Plan estrategikoak Euskara Zerbitzuaren jardun osoa bildu behar du: aurretik abian dauden programak ere horretan kokatu behar dira, dauden-daudenean, egokitzapen puntualekin edo erabateko aldaketekin, programa horien inguruan egiten diren balorazioen arabera.
- (J) Beste departamentuetako eta beste erakundeetako teknikarien partaidetza bilatu behar dugu: zeharkakotasuna hasiera-hasieratik zaindu. Horiekin programak definitzen lan

egiteko aukera badugu, interesgarria izango da gogoeta bultzatzea zeintzuk programak lideratu beharko lituzkeen Euskara Zerbitzuak eta zeintzuk izan daitezkeen beste departamentuek edo erakundeek lideratzekoak.

### Programen gestioari buruz

- (K) Programa bakoitzaren xehetasunak urtez urte definitzea aukera bat izan daiteke Sektore Kontseiluari protagonismoa emateko. Sektore Kontseiluaren eginkizuna da urteko kudeaketa planari buruzko iritzia ematea. Hori horrela, programen ezaugarriak Euskara Zerbitzuan landu daitezke eta Euskararen Sektore Kontseiluan proposatu.
- (L) Partaidetza zabaltzeko beste gakoetako bat proiektu-taldeen ideia da nire ustez. Parte-hartzeari estu-estu lotuta dago. Programak elkarreei ez ezik beste departamentuetako teknikariei ere irekitzeko aukera ematen du, bai eta elkarlanak eta lan banaketak arrazionalizatzeko ere. Euskara Zerbitzuak lehen azterketa egin eta Euskararen Sektore Kontseiluak oniritzia eman ondoren, proiektu-taldea bildu daiteke eta diseinuan bertan parte hartzeko aukera eman.
- (M) Malgutasun nahikoa izan behar dugu programa berriak abian jartzeko, eraldatzeko edo baita bertan behera uzteko ere. Gustatzen zait Siadeco enpresak ikuspegi hau nola azaltzen duen. Emergentsia eta malgutasun kontzeptuak erabiltzen ditu horretarako. Honela:
- emergentsia: prozesuan zehar aurreikusi ezin diren eta sortzen diren egoera, planteamendu, hipotesi berriak funtsezkoak izan daitezke arrakastarako.
  - malgutasuna: hasiera batan planteatzen diren lanak baliteke gero aurrera ez eramatea, lehentasunezkoetat edo operatiboak jotzen ez direlako. Aldiz aurreikusten ez diren beste batzuk aurrera eraman beharko dira.

### Euskararen Sektore Kontseiluari buruz

- (N) Sektore Kontseilua talde-lanerako espazioa izatea lortu behar dugu eta ez gatazkarako eta norgehiagokarako.
- (O) Orain arte ez gara animatu Sektore Kontseiluaren dinamikan teknika partehartzaileak erabiltzen. Taldeak eta elkarteak eroso sentitzen dira egungo dinamikarekin (gu geu ere bai). Hurrengo planaren prestaketa-garaia garai egokia izan daiteke erosotasun horiek

astintzen hasteko eta bestelako dinamikak sartzeko.

(P) Unean uneko dinamika eta aurrean ditugun erronkek esango digute nolako gaiak eraman behar ditugun Sektore Kontseilura. Edukiak bi ardatzetan kokatu izan ditugu:

— Prospektiba (aurrera begira, erabaki beharrekoak) / perspektiba (atzera begira, deskarguak, informazioa)

— Estrategikoak (epe luze-ertaina) / Operatiboa (unean unekoak, epe laburrak)

Garrantzizkoa da oreka bat mantentzea:

— egindakoaren deskargua egiteko uneak egotea baina baita aurrera begirako erabakiak hartzeko uneak ere.

— maila operatiboan programa zehatzen inguruan hitz egiteko uneak egotea, baina baita maila estrategikoan iritziak trukatzeko aukera ere.

Edonola ere, interesgarria da ikuspegi estrategikoaren arrastoa ez galtzea. Prozesuaren ikuspegia mantentzea da kontua: une bakoitzean jakitea non gauden, nondik gatozen eta nora goazen... Sektore Kontseiluaren funtzionamendua bera horretara egokitu daiteke.

### Komunikazioari buruz

(Q) Komunikazioa lehenago, bitartean eta gero. Ikuspegi hori izan behar dugula iruditzen zait eta horretan pentsatzen hasi.

(R) Markaren inguruko eztabaidak sortzen ari dira erakunde, enpresa eta elkarte askotan: zer lehenetsi behar da erakundeak, enpresak edo elkarteak marka eta irudi kooperatibo indartsua izateak ala egitasmo bakoitzak irudi propioa izatea. Hiriaren markaren inguruko eztabaida dago Udalean. Gaizki ikusita dago zerbitzuek, egitasmoek... marka propioa izatea. Dena den marka edota posizionamendu kontzeptuak irudi korporatibotik harago doaz: aukerak eta alternatibak aztertu behar dira egitasmoak posizionamendu propioa izateko.

(S) Interesgarria litzateke buletin bat sortzea. Plangintzaldian zehar maila ezberdinetako parte-hartzea bultzatu beharko genuke: batzuk Sektore Kontseiluan parte hartuko lukete, beste

batzuek proiektu batean, batzuek zerbitzu edo programa baten “*usuarioak*” izango dira, beste batzuek nahikoa izango dute informatuta egotearekin. Merezi du horiek guztiek egitasmo osoaren ikuspegi orokorra izateko tresna komunikatibo bat sortzea.

### Jarraipena eta ebaluazioa

- (T) Urtez urte Euskara Zerbitzuak egindakoaren memoria eta deskargua egin beharko luke. Hori nahikoa izan beharko litzateke jarraipena egiteko eta urtez urte egin beharreko zuzenketak edo hobekuntzak egiteko. Ebaluazioa (kanpo ebaluazioa) zerbait gehiago izan beharko litzateke. Hor bai,... hor ekintza zein programa bakoitzaren inpaktua eztabaidatu beharko litzateke eta horien baliagarritasuna berriro aztertu.

## 7. BIBLIOGRAFIA

- Administración en red (2007). [Tipos de participación y de no participación.](http://eadminblog.net/post/2006/05/19/tipos-de-participacion-y-de-no-participacion)  
<http://eadminblog.net/post/2006/05/19/tipos-de-participacion-y-de-no-participacion>
- Alboan, Hegoa eta Instituto Pedro Arrupe (2006). Sistematizazioaren abentura. Nola ikasi gure praktiketarik praktika horietatik abiatuta. Hemen:  
<http://www.bantaba.ehu.es/zabalgune/edukia/gid/sistem2/index>
- Alboan, Hegoa eta Instituto Pedro Arrupe (2004). Sistematizazioa, gure praktiken gaineko begirada berria. Hemen: <http://www.bantaba.ehu.es/zabalgune/edukia/gid/sistem1/index>
- ARRUTI, Iñaki (2006). Hizkuntza plangintza udalerrri mailan. HIZNET ikastaroa. 19. ikasgaia.
- Calzada, Ibon (2004). La narrativa como técnica de intervención organizacional. [www.mik.es](http://www.mik.es).  
<http://www.mik.es/kube/GetDoc?DBName=dPortal&ShowPath=false&UniqueKeyValue=29653>
- COOPER, Robert L. (1997). La planificación Lingüística y el Cambio Social. Cambridge University Press.
- Elhuyar Aholkularitza (2007). Euskara Planak: Nondik gatoz, non gaude eta nora goaz. Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (1999), Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2001), EBPN udal ereduaren arabera hedapena. Lehentasunak. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
- FELIU, Joel (2007). Nuevas formas literarias para las ciencias sociales: el caso de la autoetnografía. Athenea Digital, 12, 262-271.
- Ellis, C. & Bochner, A. (2000). Autoethnography, personal narrative, reflexivity: Researcher as subject. In N. Denzin & Y. Lincoln (Eds.), The handbook of qualitative research (2nd ed.) (pp. 733-768). Newbury Park, CA: Sage.
- GASTEIZKO UDALA (2008). Zeharkakotasuna hobetzeko bide gisa Vitoria-Gasteizko Udalean. Gogoeta bateratu baten emaitzak. Udal Gaiak Bilduma.
- Marko, Iñaki (2005). Hizkuntza audiotoretzak sistematizatzeko oinarriak ipintzen (I eta II)  
[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1113902066](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1113902066) eta  
[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1097057874](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1097057874)
- MARTI, Joel eta REBOLLO, Oscar (2007). Eines per a la participació ciutadana. Participació Ciutadana: bases, mètodes i tècniques (versió actualitzada). Col·lecció Papers de Participació

Ciudadana, Diputació de Barcelona, Centre per a la Participació Ciutadana Flor de Maig, Barcelona.

MARTI, Joel (2006). Tècniques participatives per al debat grupal. Col·lecció Papers de Participació Ciutadana, Diputació de Barcelona, Centre per a la Participació Ciutadana Flor de Maig, Barcelona.

MARTI, Joel (2004). Diagnósticos locales participativos: estrategias, métodos y técnicas.

MOEN, Toril. (2006) Reflections on the Narrative Research Approach. In International Journal of Qualitative Methods 5 (4) December 2006.

Montse Simó, Montse Nadal, Joan Solé i Camardons, Anna . Aproximació a l'avaluació de la campanya "Dóna corda al català" (I eta II) Llengua i ús: Revista tècnica de política lingüística, ISSN 1134-7724, N°. 35, 2006, pg - 26-32. N°. 36, 2006 , pags. 26-35.

MUÑAGORRI, Axun - Elhuyar Aholkularitza (2007): Esperientziak sistematizatzen: enpresetako euskara-planak. Erabili.com. Azpeitiko Euskara Patronatua.  
[http://www.erabili.com/zer\\_berri/berriak/1193382525](http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1193382525)

Pujadas, Joan J. (2000). El método biográfico y los géneros de la memoria. Joan J. Pujadas. Revista de Antropología Social 2000, 9: 127-158

REBOLLO, Oscar (2001) La Participación. Resistencias y cómo vencerlas. Hemen:  
[kaleidosred.org/MaterialKaleidosred/Documentos/BibliotecaVirtual/Rebollo,Participacion\\_y\\_resistencias.pdf](http://kaleidosred.org/MaterialKaleidosred/Documentos/BibliotecaVirtual/Rebollo,Participacion_y_resistencias.pdf)

VADILLO, Alex eta ATIENZA, Itziar (2005). EBPN Gasteizen. In Bat: Soziolinguistika aldizkaria zkoa: 54, Euskararen erabileraren eta normalizazioaren azterketa udaletan, orr. 77-81

ZALBIDE, Mikel (2003). Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio? Erabili.com. Azpeitiko Euskara Patronatua. Hemen: [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1056974834](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1056974834)